

TOKIKOM

2014ko martxoa | 135. zenbakia

ailkora!

txorierriko aldia

Sara Macarrilla, Mikel Eguia

Dantzatzera!

JOSUNE MONTON SONDIKAKO INAUTERIAK SAN SIDRO ERMANDADEA



**Apirileko
erosketak
DOHAINIK
izateko
aukera...**



...txartela erabiliz

Gehienez 80€-ko deskontua, zenbateko hori gainditzen duten erosketetan



Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako
Elkarte Profesionala

Anerik paraje!

Asociación Profesional de
Comercios y Servicios de Derio





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Begoña Vicario, Ixone Zubieta, Gaizka Peñafiel, Joseba Apeztexea, Txerra Rodriguez, Paki, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Aner Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Josune Montón



24 Sondikako Inauteriak



26 San Isidro Ermandadea

- 4 Eritxia**
- 5 Gutunak**
- 6 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan...**
- 12 Gurean izan da... Josune Montón, aktorea**
- 14 Gaztea eta... Amaia Ginea, kirolaria**
- 16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 18 Sara Macarrilla eta Mikel Eguía, dantzariak**
- 22 Sondikako Inauteriak**
- 24 Txorierritarrak munduan... Goretti Dañobeitia**
- 26 Elkartek... San Isidro Ermandadea**
- 28 Berbalagunen txokoa**
- 30 Non prestatu zure ezkontza**
- 35 Aikorrizketan... Kartzelako eskanerra**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

AM
FORMACIÓN Y TRADICIONES

www.am-formacion.com info@am-formacion.com

Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Erremerterri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

- INGELES EUSKALA
- MILIA GUSTUR
- AZTERKETA OFIZIALAK
- EGITEKO PRESTAKUNTZA
- ONGI TO ONE EUSKALA
- PRESTAKUNTZA ENHIBESTAN
- ERAKILAZ KANONKO KLASEAK
- ITZULPEN ZERBITZUA

Casero Dorado Txorierri
870 475

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Mitxine 6, behe - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885 - www.txorierri.com

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Gure garaira arte, aspertzearen esanahietako bat ausardia zen, hau da, aspertzen zenak ez zeukan ezer galtzeko, eta horrek ausart bilakatzen zuen. Gaur egun, konnotazio hori guztiz galdua du hitzak, eta zentzu ezkorra soilik gelditzen zaio, aspertzea gero eta txarragoa balitz bezala.

Entretanimenduaren eta denbora-pasaren garai honetan, aspertzea debekatuta dago. Are gehiago, pentsatzen badugu ardua ekonomikoak edo sufrimenduak estuta dauden gizarteetan asperraldietarako astirik ere ez dela egoten, gurean, aldiz, horretarako denbora soberan daukagu, eta kanpoko estimuluz josi behar izaten dugu geure egunerokotasuna, hutsune horiek betetze aldera.

Baina, zer gertatuko litzateke asperraldietarako esparru handiagoak utziko bagenitu? Pedante gelditzeko arriskuari aurre eginez, Kierkegaard filosofoaren aipamena egin nahi nuke, ironia eta argitasun kopuru berarekin, munduaren sortzea bera ere Jaungoikoaren asperraldiarekin lotzen baitzuen. Jaungoikoa aspertzen zenez, bada gizon-emakumeak sortu zituen.

Aspertzea

Beste zenbait alorretako jakintsuek ere honekin bat eginez, sortze prozesu eta prozedura mental interesgarrienekin lotzen dituzte asperraldiak. Gure senak zerbait egitera bultzatzen gaitu aspertzen hasten garenean, dela gure buruaren barruan ideien bat garatu, dela lagun batekin solasaldia egin, sorkuntza artistiko zein eguneroko eginkizuna bete, kuzinatu edo josi bezalakoak, kontua zerbait egitea izaten da. Oso posible da, beraz, ideia berri, argitsu, jator eta ausarta izatea aspertzen ari garen bitartean. Orduan, zergatik ixten dizkiogu ateak, zergatik egiten zaigu hain neketsu aspertzea? Ba, gure ausardi falta guztien atzean bezala, hemen ere beldurra izaten da arrazoi nagusia, pentsatzeari beldurra eta sortzeari beldurra, zer topatuko ote dugun buruaren barruan, itzelezko izua sortzen digu eta.

XX. mendearen hasieran asmatu ziren, antza, lehenengo denbora-pasak, eta ordutik hona bide luzea egin dugu geure



BEGOÑA VICARIO
(Irakaslea)

garuna distraitzeko saiatze horretan. Oraingo egunerokoan, denbora gehiago izaten gara kanpoko estimuluei erantzuten barrukoei men egiten baino. Ez dugu izaten bakarriketa mentalerako abagunerik, eta gu geu izaten gara askotan besteen distrakzioa, hori guztiz ona balitz bezala. Baina ez al gabiltza bizitzarako lanabes pertsonal batzuk herdoiltzen uzten, ez erabiltzearen indarrez? Gure buruari, munduari eta lagunei erregalatzeko zenbat ideia eta eginkizun eder ari gara galtzen?

Ez da erabaki erreza, gurasook hartu beharrekoa semea edo alaba eskolaratzean. Kontuan hartzen dira koka-pena, eraikuntza, irakaste metodologia... eta zelan ez, hizkuntza edo eredu. Beharbada, nik ezin ditut ulertu guraso erdaldunek seme-alabak D ereduan matrikulatzen izaten dituzten burukominak, nire ama-hizkuntza den euskara ikasi, transmititu ahal izan dudalako, eta euskaraz bizi. Baina zergatik beldur horiek euskararekin? Zergatik hiru eleduna den gure sistemak ingelera irakatsiko duela pentsatzeak ez die hainbeste beldur ematen?

Honen harira eta beldur horiek apur bat uxatzeko asmoz, Deiko Tximintx eus-

“Euskera. Entra un idioma en casa”



IXONE ZUBIETA
(Tximintx Derioko euskera alkarteko kidea)

kara elkarteak, eskolako guraso elkartearekin batera, Paula Kasaresen “Euskera. Entra un idioma en casa” hitzaldia antolatu du martxoan. Bertan, Paulak argi transmititu zuen euskara aberasgarria dela, elebitasun sistema hau gehitzeko dela, ez kentzeko, eta euskaraz ikasteak ez duela erdara desagerraraziko.

Animatu ditzagun ba gurasoak umeak beldurrik gabe D ereduan matrikulatzera, eta batez ere euskararekiko jarrera positiboa izatera, eskola eta etxearen artean zubiak eraiki ditzaten.

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Itonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolekin jokatu, etorri zaitzez Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Baxo
DERIO

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Lezamako semaforoak

Udaberriko atarian gaudela, Lezamako herri politetik pasatzen garenok herria ikusteaz disfrutatzen dugu. Baina oraindik ere ez dago ezta arduradun bat ere bertatik igarotzeari bideak arintzeko prest.

Gidariekin autoa semaforoetan gelditu behar ez izateko egin behar den lana ez da hain gatzat: botoitxo bat ipini eta oinezkoek, errepidea gurutzatu nahi dutenean, hura sakatu eta bidea libre izango dute. Semaforoak dauden moduan uzteko arrazoiak ez ditut ikusi, inork ez diolako erantzun eman eskera honi. Hala ere, semaforoen sistema aldatzeko arrazoiak artean hauek biak aipa ditzakegu:

–Energia aurrezteak. Urtero herritik pasatzen diren milaka autoek beren bideari gelditu behar izan barik jarraitu ahalko balioke, energia aurreztuko litzateke.

–Kutsadura. Autoek semaforoetan gelditu behar ezenean, ihes-hodietatik ateratzen den kea gutxituko litzateke eta Lezama herri apur bat garbiagoa izango litzateke.

Eta aipatutako arrazoi biek pisu handirik ez balute, nire ustez nahikoa da semaforoetan gelditu behar ez izateak he-

*“Botoia ipiniz gero,
energia aurreztuko
genuke eta kutsadura
gutxituko litzateke”*

rritarrei eta erbestekoei ekarriko liguken poza. Nik behintzat ez dut inor ezagutzen semaforoen alde dagoenik. Begiratu ondoko herriei: Zamudion, esate baterako, botoitxo sakatuta funtzionatzen dute eta Zornotzan ez dago ezta semaforo bat ere.

Ea, mugitu herri ordezkariak, erantzun herritarren eskariei, eta itsu eta gormutu egon beharrean, aurrera jo. Eta semaforoen sistema aldatzeko arrazoirik ikusten ez baduzue, kanpoko egiaztatzaileei galdetu. Beharbada, Ram Manikalingam prest azalduko da semaforoak alferrekoak direla egiaztatzeko.

Jabier Lekerika

Motorzaleen bazkaria eta gazte jaia

Mugimendu handiko eguna izango da apirilaren 5a, Loiu. Txori Bikers taldeak bazkaria antolatu du egun horretarako eta Bizkaia osoko motorzaleek hartuko dute parte bertan. Ibilbidea egingo dute tabernetatik, eta Loiuako sagardotegian izango dute bazkaria. Kontzertuak arrastiko 6:30ean hasiko dira: Vio-dance eta Kartzarot. Motorzaleak alde egiten hasten direnean –nahi dutenak, noski–, gazteen txanda izango da. Izan ere, egun horretan ere Loiuako Gazte Jaia egingo da bigarren aldiz. Gaueko 9etatik aurrera, talde hauek arituko dira: Enkore, EH Sukarra, Akerbeltz eta Dj Ibai. Gainera, autobus bat ipiniko da doan Loiuaraino hurbiltzeko eta handik etxera itzultzeko. Autobusa arrastiko 7etan eta iluntzeko 9etan eta 11etan irtengo da Larrabetzutik eta geldialdi hauek egingo ditu: Larrabetzu, Elexalde (Lezama), Arteaga (Zamudio), Txorierriko etorbidea, 5 (Derio), Larrondo (Loiu), eta Txorierriko Etorbidea 3 (Sondika). Loiuetik goizaldeko 1etan, 3retan eta 5etan irtengo da.

Acero, Sondikan

Kepa Acero surflariak 5 olatu, 5 kontinente dokumentala aurkeztuko du apirilaren 3an, Sondikako Kultur Etxean. Ekitaldia arratsaldeko 7etan izango da eta Altzora euskara elkar-teak antolatu du.


LIBRERIA SONDICA
LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDICA (Bizkaia)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfn: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDICA (Bizkaia)

Consulting SONDICA S.L.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 473 746

Mitxina: 6 berheas
48150 Sondika-Bizkaia

T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

HARATEGIA • URDAITEGIA
VICTOR
ARTISAU-LABORAZOIA

Okela ekoizten dugu:
odolostak, txorizoa,
bistorra, solomak...

Plater aurrekoiztatu

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

Mendi martxa, Elotxelerrin

Apirilaren 13an, domekan, mendi martxa egingo da Elotxelerrri Loiuuko auzoan. Mendi martxa goizeko 9:30ean hasiko da, eta irteera zein helmuga Elotxelerrriko Kultur Etxean izango da. Ibilbide bi egongo dira: bata, 12 kilometrokoa eta helduei zuzenduta; eta bestea, bederatzi kilometrokoa, eta umeei zuzenduta. Martxaren ostean, txi-txi-burruntzia eskainiko da parte-hartzaileentzat.

Ekitaldia Loiuuko Udalak antolatuta du, eta elkarte hauen laguntza eduki du: Gautxoriak Larrondoko jai-batzordea, Danontzat elkarte eta Loiu mendi taldea.

Antolatzaileek jakinarazi duten moduan, izen-emate moduan elikagai ez galkorren bat eramatea eskertuko da. Elikagaiok Danontzat Loiuuko Elikagai Bankuari emango zaizkio.

Gazteen artean tratu oneko harremanak sustatzeko tailerrak

Martxoan, tailer-saila bati eman zioten hasiera Lezaman. Tailerrak gazteei daude zuzenduta eta helburu hauek dituzte: neska eta mutilen artean tratatu oneko harremanak sustatzea eta emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea. Tailerrak Sortzen aholkularitza ematen dabil herriko Gaztegunean eta Gaztelekuan. Datozen hilabete-etarako zehaztu diren datak hauek dira: maiatzak 9, ekainak 6, irailak 26 eta azaroak 21. Gaztegunean arratsaldeko 6etan izango dira, eta Gaztelekuan, arratsaldeko 7etan. Era berean, berdintasuna ardatz nagusitzat duten hainbat ekimen egingo dira ludotekan ekainera arte.



Txorierri, urdina

a: Gaizka Peñafiel



Gure Esku Dago ekimenak giza kate bat antolatu du ekainaren 8rako, erabakitze eskubidea aldarrikatzeko eta herri-tarrok prozesu horretan dugun garrantzia azpimarratzeko. Horren haritik, hainbat ekitaldi antolatzen dabilta eskualdeka, eta Txorierriko taldeak egin duen azkena txori-martxa izan da, Larrabetzun, martxoaren 16an. Ekimenaren kolorea urdina da eta igande horretan Txorierri ere izan zen urdina. Eta batez ere Larrabetzu, ekitaldi nagusiak han antolatu zirelako.

Parte-hartzaileak 9:00etan abiatu ziren Sondikatik Larrabetzura. Hamahiru kilometroko ibilbidean aurrera egin ahala, Txorierriko beste herrietako lagunek egin zuten bat martxarekin. Guztira 400 lagun bildu ziren Larrabetzun. Herriko plazan dantza tailer erraldoia egin zen Astrapala taldearen eskutik. Josu Zarateren gidaritzapean, ohiko dantzak egiteko aukera egon zen. Ondoren, Taberna Ibiltaria taldeak kantaldia eskaini zuen. "Giroa aparta sortu zen eta eguraldia lagun izan genuen. Gainera, gazte eta ume pilo bat etorri ziren eta hori oso garrantzitsua da", esan dute ekintzaren antolatzaileek.

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

Garmendia
ardoak

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

RPL 18470

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, beheka
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Garmitxarekin bat

Txinpasmendi Larrabetzuko guraso elkarteak eta Garmitxa elkarteak Garmitxarekin Bat Larrabetzun ekintza antolatu dute apirilaren 4tik 6ra bitarteko egunetarako. Apirilaren 4an, 19:00etan, *Izar eta Zenaida: indar magikoa* antzezlan taularatu da eskolako jantokian; 4 urtetik 11ra bitarteko umeentzako lana da. Hurrengo egunean, *Luchando contra lo desconocido* dokumentala emango da; hura ere eskolako jantokian izango da 18:30ean, eta Gaztelumendi abesbatzak hartuko du parte bertan; nagusientzako dokumentala da eta ludoteka egongo da umeentzat.

Azkenik, apirilaren 6an Garmitxa elkartearen aldeko martxa egingo da

bigarren aldiz. Izena egun horretan bertan eman behar da, plazan, 10:00etatik 11:00ak arte. Hamabi urtera artekoek euro bi ordainduko dute; hiru euro, beste guztiek. Elkarteari buruzko informazioa duen txarteltxo bana emango zaie parte-hartzaileei izena ematea egiten dutenean, eta ibilaldia amaitzen denean pintxo bat hartzeko erabili ahal izango dute. Martxari 11:00etan emango zaio hasiera, eta ordu bi inguru iraungo du. Plazan, txosna bat ipiniko da eta informazioa eta salmenta gune bat ere egongo da. Batutako dirua elikagaiei erabateko intolerantzia dieten umeen gaixotasuna ikeritzeko erabiliko da.



188 parte-hartzaile, Mihiluze txapelketan

Txorierriko Mankomunitateak Mihiluze lehiaketa antolatu du hirugarren aldiz. Lehiaketa 5. eta 6. mailan dabilen neska-mutuei dago zuzenduta. Gaztetxoek euskarara arloan duten jakintza erakutsi beharko dute, eta, horren truke, irabazleek familian disfrutatzeko sariak jasoko dituzte.

Aurten 188 ume eman dute izena txapelketan. Urterik urte handitzen doan kopurua da, izan ere, 2012. urtean 114 ume ibili ziren txapelketan, eta iaz, 130.

Kanporaketak hurrengo aste-etan egingo dira herri bakoitzeko ludotekan. Herri bakoitzetik bikote irabazle bat aterako da, finalaurrekoetara joango dena. Txorierri mailan bigarren geratu direnen artean puntuaziorik altuena ateratzen duen bikotea ere pasatuko da finalaurrekoetara.

Finalurreko bi izango dira apirilaren 11n: bata, Lezamako ludotekan; eta bestea, Zamudiokoan. Finalera puntuaziorik altuena ateratzen duten hiru bikoteak pasatuko dira. Finala maiatzaren 9an izango da Derioko Kultur Birikan. Irabazleek saritzat Warnerrera irteera bat jasoko dute; Nafarroako Senda Vivara, bigarrenek; eta Donostiara, hirugarrenek. Lehiaketaren parte-hartzaile guztiek Mihiluzeko kamiseta bana jasoko dute.



ziurtagiriaren elkartea

Bai Euskarari Ziurtagiria,
alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten

urrats biziak

[f /baieuskarariziurtagiria](#) [t @baieuskarari](#) [w www.baieuskarari.org](#)



Alaia

fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Talari, 5
48170 Zamudio
94 452 08 25





HARATEGIA

ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Koadrilla Txapelketa, Derioko jaietan

San Isidro Derioko jai-batzordea Koadrillen arteko txapelketa antolatu du lehengo aldiz, herriko jaietako egitarauaren haritik. Azaldu diguten moduan, aurtengo jaietan zehar proba batzuk egingo dira, eta bertan koadrillak aritzea baloratuko da. Sari bi emango dira: 300 euro, irabazleentzat; eta 100 euro, bigarren gelditzen direnentzat. Txapelketan parte hartu ahal izateko, 16 urtetik gorakoa izan behar da. Lehian aritu nahi duten koadrillek mezu bat agindu behar dute sanisidrojb@gmail.com helbide elektronikora. Helbide horretan ere eskatu ahal da informazio gehiago.

San Isidro jaiak maiatzaren 15ean hasiko dira aurren, eta asko kontatu nahi izan ez badute ere, jai-batzordeko lagunek detaile batzuk aurreratu dizkigute. Hala, gau berezia prestatuko dute barikurako, "kutsu tropikala" edukiko duena. Kontzertuak talde hauen eskutik izango dira: Zizka Mizka, Glaukoma, Skakeitan, Dj Makala, Fabe de Fuka txaranga, Frantzeska, Gatibu eta Dj Bull. Kale antzerkia ere berreskuratu dute. Herri bazkaria zapatutik domekara pasatu dute.



a: Aner Mentxaka

285 korrikalari, Burdinazko Harresian



a: BHK

Martxoaren 15ean, Burdinazko Harresian Karraderan I. Mendi Lasterketa antolatu zen Larrabetzun. Guztira, 285 korrikalari hartu zuten parte, eta helmugan Javier Olabarria (gizonezkoen mailan) eta Alizia Olazabal (emakumezkoen mailan) nagusitu ziren. Antolatzaileak poz-pozik agertu dira lasterketak izan duen arrakastarekin. "Espero baino askoz korrikalari gehiagok eman zuten izena, eta gainera kirolariak zorionak eman dizkigute, distantzia originala eta ibilbide polita aukeratu izanagatik".

Herriak bat egin zuen lasterketarekin, eta martxoaren 15ean bertan ez ezik, aurreko egunotan ere antolatu ziren horren inguruan hainbat ekitaldi. "Eskerrak eman nahi dizkiegu boluntarioei, Udalari eta herriko taberna eta babesleei egin

duten esfortzuaengatik eta izugarrizko atxikimendua adierazi digutelako". Antolatzaileek lasterketaren bideoa aurkeztuko dute laster, eta kolaboratzaile guztiak gonbidatuko dituzte ekitaldi horretara.



luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietta

Osuatu-zentroa & Hortz-estekia
HORTZ-IMPLANTEAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
DENTURAK ZEIN BULAKAK

Dr. Arellano kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urtze plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Gazte Eguna, Zamudion

"Ei gazte! Mugi gerria, irauli herria!" leloa aukeratu du Inisitue Zamudioko gazte asanbladak aurtengo Gazte Egunerako. Hori apirilaren 5ean egingo dute. Egun osoan zehar ekitaldi-sorta zabala egongo da herrian.

Txupinazoa 10:45ean botako dute, eta ostean umeentzako jolasak eta tailerrak egongo dira. Era berean, gaztekirol-jinkana bat izango da, aurten lehenengo aldiz antolatu dena. Poteoa 13:00etatik aurrera egingo dute, eta ekitaldia eta bazkaria ere edukiko dituzte. Bazkarian parte hartzeko, izena eman behar da taberna hauetariko batean: Susterrak, Fernan edo Ama3. Mezu bat ere bidali

ahal da helbide elektroniko honetara: inisituegazteasanblada@gmail.com.

Arratsaldean, 17:30ean, Gazteolimpiadak izango dira; eta 19:30ean, Musikalejira. Eszenatokira talde hauek igoko dira: La Vieja, Bertan Bera, Sarkor eta Trikizioa. Kontzertuak 23:00etan hasiko dira, eta, eguraldiaren arabera, plazan edo frontoian izango dira. "Gure helburua herriko gazteria martxan jartzea da, Gazte Egunekeo ekintzetan parte hartzea", esan digute antolatzaileek. "Baita urtean zehar egiten ditugun eta gazte guztiei zuzenduta dauden ekintzetan parte har dezatela ere. Bidea autogestioa dela jakinda".

Ekitaldiak, Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta data horren inguruan ekitaldiak antolatu dira Zamudion, Larrabetzun eta Loiu. Hala, arratsaldeko 6etan ekitaldi berezi bat egingo da Zamudioko liburutegian; eta arratsaldeko 7:30ean, komiki tailerra Gazte Estazioan. Larrabetzun, Eneko Etxegarai idazleak *Puagg!* umeentzako ipuina irakurriko du arratsaldeko 6etan, Anguleri Kultur Etxean. Eta apirilaren 25ean liburu zaharrak tuneatzeko tailerra egingo da. Hori arratsaldeko 5etan izango da Anguleri Kultur Etxean ere bai. Bertan parte hartzeko izena emateko epea apirilaren 9ra arte egongo da zabalik.

Azkenik, ekitaldi bi egongo dira Loiu. Apirilaren 2an, eta Haur Liburuen Nazioarteko Egunaren haritik, ipuin kontalari bat arituko da haur liburutegian. Saioa arratsaldeko 6etan hasiko da. Bestalde, "Zuk nola egiten duzu?" argazki lehiaketa antolatu da. Lanak apirilaren 1etik 17ra bitartean aurkeztu beharko dira. Lehiaketaren oinarriak Loiuako liburutegian eta www.loiu.org webgunean kontsulta daitezke. Argazkiak apirilaren 23tik maiatzaren 9ra ipiniko dira ikusgai.

Iñaki 94 455 65 08 **Jabi** 94 452 14 31

Magalarte txakolina

ARITXALETAK HERRIA ETA BIZKAIA

75 cl. 10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina Denominación de Origen

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Arbolantxa kalea, 6 - 1. ezk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 665 70 33 12

MAS X MENOS

Janari-denda
Prezio paregabeak

Bestorrene, 3 DERIO
670 60 70 41

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokorrean
Asanblakom konsumatibak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinpiko amaierako garbiketa
Ikastetxeak
Zabon ikusien

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Ekidazu, Luz Saint-Sauveur udalerrian



Lezamako abesbatza Luz Saint-Sauveur Frantziako udalerrian izan zen martxoaren 14tik 16ra bitartean, hango abesbatzak gonbidatuta. Hara 30 lagun joan ziren, 20 koro-kide eta 10 lagun, eta, esan

diguten moduan, asteburu zoragarria pasatu zuten. Ilbetea ere lagun eduki zuten, herrira ailegatu zirenean, gau ezin politagoa egon zelako. Guztion artean afari eder batez gozatu ahal izan zuten.

Luz Saint-Sauveur Midi-Pyrénées-eko eskualdean dago eta Ekidazu abesbatza-koek mendira joateko aprobetxatu zuten zapatu goizean: batzuek elur-erraketak hartu eta elurretara joan ziren; eta beste batzuk, paseo bat ematera eta inguruak ezagutzera. Guztiek zapaldu zuten elurra.

Arratsaldean kontzertua eman zuten Tenplarioen elizan, tokiko abesbatzarekin batera. Koru bakoitzak 10 abesti eskaini zituen. Domeka goizean txangoa egin zuten berriro eta eguerdian bazkaria eduki zuten Ferme Basque jatetxean. "Lehen euskal artzainak handik pasatzen ziren eta jatetxeak horregatik du izen hori", azaldu dute. "Oso gustura egon gara, ailegatu ginen lehenengo momentutik. Bestalde, aipatu behar da bertako hizkuntza patois dela. Askok hizkuntza hori ikasi zuten txikitan eta hango abesbatzak kantatutako abesti batzuk hizkuntza horretan zeuden. Horregatik azaldu zuten euskararekiko enpatia".

Lasterbidean lasterketa maiatzan egingo da Larrabetzun

a: Lasterbidean

Martxoan, Lasterbidean nazio elkartasun lasterketa aurkeztu zen jendaurrean Larrabetzun. Ekimenak euskal errepresaliatu politikoen eta beren senideen eskubideak aldarrikatzea du helburutzat. Maiatzaren 18an egingo da Larrabetzun.

Lasterketak goizeko 11etatik arratsaldeko 7ak arte iraungo du eta ibilbide bi egingo dira. Luzeak 7,600 kilometro izango ditu eta bertan parte hartzeko izena www.lasterbidean.com webgunean eman behar da. Ibilbide laburrak 3,200 kilome-



tro edukiko du eta izen-ematea lasterketaren egunean bertan egin ahalko da. Horrezaz gainera, egun osoan zehar hainbat ekitaldi antolatuko dira: herri kirolak, 600 lagunentzako bazkaria, kontzertuak, txosnak...

Lasterbidean lasterketa iaz egin zen lehenengo aldiz Oiarztunen eta han 1.200 korrikalarik hartu zuten parte. Era berean, ehunka lagun batu ziren Oiarztunen errepresaliatu eta beren senideen eskubideekiko elkartasuna adierazteko.

Antolatzaileek adierazi dutenez, lasterketa desagertzeko bokazioa zuela jaio zen iaz. Hala, errepresaliatu eta beren gertukoaren eskubideak betetzen direnean amaituko da. Bitartean, herrialdez herrialde mugitzeko asmoa dute eta horregatik ekarri da Gipuzkoatik Bizkaira aurtan.



BIZKAIA IRRATIA **Txorierrin**

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Adán

Joseba Apezetxea Zamudioko argazkilariaren argazki bi proposatu dituzte Quijote sarirako: bata, erretratu kategorian; eta bestea, paisaia kategorian. Orrialde honetan erretratu kategoriako lana duzue, Adán Batiz lezamarrari egindako argazkia.

Argazkia: Joseba Apezetxea



lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis 48196 Lezama

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalaren heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA





Landarak
LANDARE APAINGARRIA

Gutiokza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BRIZKALA)

“Nire pertsonaia oso gordina da, erreal

JOSUNE MONTÓN | aktorea

Donostiako aktoreak *King Kong neska* bakarriketa aurkeztu zigun Zamudion Emakumeen Nazioarteko Egunaren haritik. Ikuskizuna Virginie Despentes-en *King Kong Teoria* liburuaren hitzaurrean dago oinarrituta, eta Iñaki Seguiolak egin du itzulpena. Lagatzu Zamudio euskara elkarteak antolatu zuen ekitaldia.

t: Itxaso Marina / a: J.M.

Zergatik neska basatia?

Despentesen liburua irakurri nuen, eta pentsatu nuen hitzaurreak bazituela, bere tonuagatik, antzerkian egiteko aukerak. Martxoaren 8a dela-eta, zerbait prestatzeko eskatu zidaten herrian, eta haren irakurketa dramatizatu egin nuen. Baliagarria zela ikusi, eta pertsonaia landu nuen. Bestalde, oso gai interesgarria iruditu zitzaidan eta inportantetzat jo nuen han azaltzen diren ideiak zabaltzea. Izan ere, nik beti eman diot garrantzia mezuari, eszenatokian esaten ari naizenari.

Gizartean ezarritako emakume ereduari buruz hausnartzen duzu bakarriketan: etxekoandre ona, baina ez neskame; seduktorea, baina ez puta; langilea, baina bere gizonaren lana zapuztu barik... Eta horretarako, deserosotasuna sor dezakeen pertsonaia bat darabilzu. Zelako harrera du?

Oso ona normalean; jendea gustura gelditzen da. Egia da hasieran apur bat shock dela, eszenatokira oso pertsonaia deseroso bat ateratzen dudalako, pixka bat makarroia, eta fisikoki ere oso okerra eta desagokia dena. Baina berehala harrapatzen da haria, eta jendeak barre egiten du, bere umore-puntua ere baduelako. Mezuarekin ere egoten dira ados, eta bat egiten dute planteatzen den emakumeen zerrendako batekin edo batekin baino gehiagorekin.

Nondik atera da pertsonaia makarroi hori?

Liburuan atal bi bereiz daitezke: alde batetik, hitzaurrea; eta bestetik,

egileak kontatzen dituen bere bizitzako hiru momentu. Bere buruari buruz ere hitz egiten du eta, besteak beste, apur bat friki dela dio. Nire pertsonaia sortzeko erreferentzia bila nenbilela, liburuan zioen horretan oinarritu nintzen. Eta tonuan ere bai. Baina makarroia baino gehiago, nik oso pertsonaia gordina dela esango nuke, errealitatea gordina den modu berean.

Oso aldaketa gutxi dago liburuaren hitzaurrearen eta zure bakarriketaren artean. Egileak dio lehen aipatutako eredutik kanpo dauden emakumeentzat idazten duela: itsusientzat, historikoentzat, kamioilarientzat..., eta zuk ere horientzat hitz egiten duzu. Eredu horren barruan daudenentzat edo egon nahi dutenentzat ere bai?

Baina kontua da ez dagoela inor ere horren barruan, ez dela existitzen. Ikuskizunean diot ondo iruditzen zaidala halako emakumeak egotea, politak, gazteak..., baina ni ez naizela halakoa; ni emakumetasunaren proletarioa



itate bezala"

naizela. Hala ere, geroago aipatzen dut eredu hori ez dela existitzen, ez dagoela eredu hori betetzen duen emakumerik. Ezinezkoa delako hain perfektua izatea.

Eta gizonentzat?

Gizonentzat ere bai, gizonak ere bere eredutik kanpo daudelako. Guztiok sentitzen dugu dagokigun ereduaren karga. Modu batean jokatu behar dugula uste dugu, baina azkenean beste modu batean jokatzen dugu. Sexu ereduak oso nabarmenak dira. Umeek, esate baterako, txiki-txikitatik dakite neskatoei zein kolore gustatzen zaien, eta zein, mutikoei. Eta nik ez dut uste hori genetikoa denik; hori ikasten dutena da, txiki-txikitatik ikusten dutelako. Oso barneratuta dauzkagu guztiok eredu horiek: gizonetakoek eurenak, eta emakumezkoek geureak. Eta gizonetakoek gureak, eta guk haienak ere. Badakigu zelan izan behar den bestea, baina azkenean inor ez da eredu horiek dioten bezalakoa.

Zein da emakumearen papera antzerki munduan?

Egia da gauzak aldatzen ari direla, eta gero eta emakume gehiago ikusten dela lanean; eta oso era pertsonalean, gainera. Hala ere, orokorrean, nik ikusten dut oinarrian emakume asko eta asko daudela, oinarri hori aurrera eramaten, baina azkenean nagusitzen dela zeri ematen zaion balioa. Alde batetik, beste esparru batzuetan gertatzen den bezala, emaku-

"Badakigu zelan izan behar den bestea, baina azkenean inor ez da ereduak dioten bezalakoa"

"Ezin dira erreferente femeninoak modu artifizialean sortu"

meak berak ez dio garrantzirik ematen bere buruari; eta bestetik, mundu sozialak ere ez du baloratzen. Gizonezkoen lanari emakumezkoenari baino balio handiagoa ematen zaio, gauza interesgarriagoak esaten omen dituztelako edo ez dakit nik zergatik... Eta balio hori eman zaienez, askotan gizonezkoenak dira jorratzen diren gaiak, eta emakumezkoek apur bat atzerago gelditzen gara. Dena dela, gainerako arloetan bezala, mundua aldatzen denean aldaketa da antzerkigintzan ere balioaren kontua. Hau da, oso barneratuta daukagun zerbait da eta pertsonengan gertatu behar da aldaketa, eta pertsonengandik lanbidera pasatu.

Emakumeok gertu dauzkagun erreferente asko emakumezkoak izan arren, historikoki eduki ditugun gehienak edo ia guztiak gizonezkoak izan dira. Antzerkigintzaren kasuan ere badago erreferente femeninoak sortzeko beharrik?

Lehen esan dudana bezala, hori pixkanaka-pixkanaka ari da gertatzen. Eta gero badago merkatu bat Martxoaren 8aren eta Azaroaren 25aren inguruan, eredu horiek sortzeko aukera ematen duena. Baina nik uste dut erreferente horiek ezin direla modu artifizialean sortu. Nik interesatzen zaizkidan egileak edo sortzaileak ditut erreferentetzat antzerkigintzan, eta emakumezkoak izateagatik ez zaizkit gehiago edo gutxiago interesatzen. Haien lana nigan aliegatzen delako interesatzen zaizkit.

Aktorea

Josune Gorostegui Montónek (Donostia, 1970) hogeitaz hamar urte baino gehiago daramatza antzerki munduari lotuta. Estatu mailako zein nazioarteko birak egin ditu eta bakarrik zein beste konpainiekin aritu da; haien artean Legaleón eta Trapu zaharra antzerki taldeak azpimarra daitezke. Antzerki ikastaroak ere eman ditu. 2009. urtean Teatro Que Madera sortu zuen Laura López aktorearekin.

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zaintza Berria
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriem etorbidea, 9 - Loria | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

t o k
t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabarra 10, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 527 987 | info@patxi.org | www.patxi.org

t: Gaizka Eguzkitza / a: A.G.

Beti kirolari lotuta, ezta?

Beti izan naz kirolari amorratua. Eskupelotan txikitan hasi nintzan jokatzeko. Hamalau urte nituala itxi behar izan neutsan, adin horretatik gorako nesken-tzat ez dagoalako txapelketarik. Gero tria-tloian hasi nintzan, baina min hartu neban eta horri be itxi behar izan neutsan. Eta futbolari ekin neutsan. Zortzi urtean ibili nintzan jokalarik, beste bat entrena-tzaile, eta azkenik mushingean sartu nin-tzan.

Zergaitik aldaketea?

Bakarrik taldean baino erosoago senti-duten naz lehian, oso lehiakorra nazala-ko. Batzuetan, taldeko kiroletan taldekide batzuek ez dabe behar beste emoten, eta nik ezin dot hori onartu.

Eta kanikrossean hasi zinan...

Bai, orain dala hiru urte *kanikrossa* ikusi neban telebistan, eta erakargarria iruditu jatan. Kirola berez *mushinga* da, baina hainbat mota ditu, eta eurentako bat da *kanikrossa*. Ni hori egiten hasi nintzan, baina beste korrikalarien txakurrak ger-tuegi egozan, eta nire animalia urduri jar-ten zan. Beraz, *bikejoringa*, hau da, bizikle-taz egitea erabagi neban. Egia esan, bizi-kletaz korrikaz baino politagoa iruditzen jat, teknikoagoa dalako eta esfortzu fisiko gitxiago eskatzen deustalako. Azken bost hilabeteotan, bizikletaz ibiltzen naz.

Orain dala gitxi hasi zara, baina txapelketetan lortu dozuzan emaitzak parebakoak dira, ezta?

Bai. Aurten Euskal Herriko zein Espai-niako txapelketak irabazi dodaz. Gainera, Espainiako Kopan (bost lasterketak osatu-tako txapelketa) be nagusitu naz. Lehiak-e-tetan Iñaki Lejarreta txirindularia daukat gogoan. Nire mutilaren koadrilakoa izan zan eta auto batek harrapauta hil zan. Emaitzek apur bat harritu nabe. Nik pri-meran pasetan dot *kanikrossean*, eta oso motibauta nago: garaipenak lortu dodaz, izugarri lagundu deuten lagunak ezagu-tu dodaz... Oso ilusionauta nago eta ilusi-noagaz dana lortzen da.

Eta zein da hurrengo urratsa?

Urrian, Europako txapelketara joango naz, Frantziara. Estatuan oso denpora gi-txi daroe txapelketak antolatzen, eta ez dago eskarmentu handirik, baina adituek esan deuste banazala Europa mailan le-hian sartzeko gauza. Eta saiatuko naz. Eta

"Txakurra gurago dot gi

AMAIA GINEA | kirolaria

Ez da lehenengo aldia Amaia Ginea dakargula geure orrialdeetara, baina merezi dau. Izan be, larra-betzuarra kirolari amorra-tua da eta pelotan, tria-tloian eta futbolean ibili ostean, *bikejoringean* hasi da lehiatzen. Eta emaitza ederrak lortu ditu, Estadu-ko txapelduna da-eta. Ki-rol honetan bere pasino biak buztartzen ditu: kiro-la eta txakurrak.



Amaiak Iñaki Lejarreta txirindulari eta lagunaren omenez egindako maillota janzten dau lehiaketetan.

gero Munduko Txapelketara be joango naz. Ea zer gertatzen dan... Mundua eza-gutuko dot behintzat (kar, kar...). Ikastera joango naz.

Kirol honetan ez zagoz bakarrik. Aurkeztuko deuskuzu txakurra?

Oker dau izena, eta artzain txakurra da. Esaten da txakurra gizakion lagunik onena dala, eta ni ados nago. Nik txakurra ala gizakia aukeratu behar badot, zalantza barik egingo neuke txakurraren alde: ez

dabe inoiz huts egiten, beragaz dozun alkartasunak ez dau parekorik... Txikitan txakur bi hil jatazan eta ez neban gehia-gorik gura, oso txarto pasau nebalako. Baina orain dala hiru urte lagunek Oker ekarri eusten eta poz-pozik nabil. Artzain txakurra ez da *kanikrossa* egiteko errazarik aproposena, eta horregaitik beste txakur-kume bat hartu dot, alaskanoa dana, hau da, husky eta brako errazen gurutzaketa. Emaitza ule gitxi daukan txakur indartsu

zakia baino"



eta azkarra da. Xirak 11 hilabete ditu eta apurka-apurka hezten nabil nigaz txapelketetan parte hartzeko. Oker urduria da eta ez jako beste txakurrakaz ibiltea gustetan; Xira, aldiz, lasaia goa da eta aukera handi goa emoten deust etorki-zunean *mushinge*ko beste modalitateetan aritzeko, halan gura izanez gero. Esate baterako, patinean ibilteko txakur bi behar dira eta agian neureak erabili ahal ditut.

Non eta zelan entrenaten dozu?

Ez dogu entrenamentu berezirik egiten. Mendira joaten gara, eta kitu. Gehiago entrenau beharko neuke, baina tira... Europa eta Munduko txapelketetan ondo aritu gura badot, gogorrigo entrenau beharko dot. Batzuetan bakarrik ibiltzen naz, baina besteetan, lagunakaz. Facebooken bidez harremanetan nago lagunakaz-eta, eta Aritz eta Naiara eza-gutu nebazan bertan. Biak alkarregaz bizi dira Larrabetzun, eta eurek be *mushinge*an ibiltzen dira. Eta askotan alkarregaz joaten gara entrenatera. Naiaragaz batera erakustaldia egin neban orain dala aste batzuk Larrabetzun.

"Bakarrik taldean baino erosoago sentiduten naz lehian, oso lehiakorra nazelako"

"Nik primeran pasaten dot kanikrossean eta lortutako garaipenek motibazioa ekarri deuste"

Erraza da txakurra eta bizikleta aldi berean menperatzea?

Ez, bape ez. Eta neska gitxi egiten dogu. Arriskutsua da, menditik erori ahal zaralako. Horregaitik, neskek *kanikrossa* gurago dabe. Baina gero eta gehiago gara (kar, kar...).

Mushinga

Txakurrek bultzatutako lerak erabiltzen zituen Eskandinaviako biztanleek, edurretan azkar ibilteko. Denporearen poderioz, bizimodua kirol bihurtu zan eta *mushinga* jaio zan. Kirolagaz batera hainbat mota sortu ziran: zortzi txakurrek bultzatutako lau gurpileko ibilgailua; lau txakurrek bultzatutako hiru gurpileko ibilgailua; txakur bik bultzatutako patina; bikejoring edo txakur batek bultzatutako bizikleta; eta kanikrossa edo txakur batek bultzatutako korrikalaria.

Kirolariek 6-8 kilometroko lasterketei egin behar deutsee aurre, eta kirola neguan baino ez da egiten. "Txakurrek ezin dabe korrika egin 16 gradu baino gehiago badago; beste-la, beroegi dira", azaldu deusku Amaiak. Kirol honen mailarik handiena, noski, Iparraldean dago, Norvegia, Finlandia edo Suedian, eta era berean, Estatuan; batez be, Katalunian eta Galizian.



Unitzaga Ibaia, Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEIRO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



BATXILERGOA

* Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

* Mekanizatua

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- * Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- * Ekoizpenaren Programazioa
- * Automatizazioa eta Robotika Industrial
- * Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- * Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- * Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola

Osasunaren Astea, Txorierrin

Apirilaren 7a Osasunaren Nazioarteko Eguna da eta ospakizun horren haritik, Txorierriko Mankomunitateak zenbait ekintza antolatuko ditu herri guztietan. Osasunaren Mundu Erakundeak 1950etik ospatzen du egun hori eta urtero osasun publikoko lehentasunezko arlo bat lantzen dute. Egunak pertsona guztiei ematen die beren osasuna hobe dezaketen ekintzetan parte hartzeko aukera. Hauek dira aurrean osasunaren alde Txorierrin egingo diren ekintzak, herritar guztiei zuzenduta daudenak:

JOSE LUIS KORTAREN HITZALDIA

Kaikuko kirol zuzendariak "Euskararen eta kirolaren garrantzia nire bizitzan" hitzaldia eskainiko du apirilaren 4an, ostiralean. Hitzaldia arratsaldeko 7etan izango da Derioko Kultur Birikan eta, beste batzuen artean, bere ibilbidea azalduko du bertan: non jaio zen, nola hasi zen kirol munduan, zer aurkitu zuen Kaiku arraun taldean... Hitzaldia amaitzen duenean, galderak egin ahalko zaizkio. Jendeak motibatuko du, euskarak eta kirolak bere bizitzan zein garrantzia duten azalduz.

ELIKADURAREN GARRANTZIA, EMAKUMEAREN OSASUNEAN

Hitzaldi honetan oinarritzko alderdiak landuko dira elikadurari eta dietetikari buruz. Bestek beste, gai hauek jorratuko dira: dieta orekatu bat egitearen garrantzia; osasun on bat eta bizi-kalitate on bat izateko, elikadura-gurpilean dauden elikagaien garrantzia; egiten ditugun dieten aldaketen eragina gure osasunean; kalte egiten diguten elikadura-ohituren aldaketak, argaltzeko dietak nola egin behar diren... Hitzaldia Lezamako Uribarri Topalekuan emango da apirilaren 8an, arratsaldeko 7:30ean.

TXOTXONGILO-ANTZERKIA HAURRENTZAT

Era ludiko eta irudikor baten bidez, ortuko kolore biziko barazkiek haurren osasunarekin, gatazken konponketarekin eta talde presioarekin zerikusia duten gaiak jorratuko dituzte. Horretarako, sei antzezlan ezberdin eskainiko dira: *Baratzeko sekretua*, *Bruselako aza galdu egin da*, *Txanpinoi iritsi da*, *Edabe miragarria*, *Azenariok tranpa egin du* eta *Kalabazaren arazoa*. Txotxongilo-antzerkia apirilaren 4an, arratsaldeko 6etan, izango da Loiuko ludotekan.

*Apirilaren 3tik
8ra, guztiontzako
ekitaldiak*





OSASUNAREN ALDEKO LASTERKETA-MARTXA

Ekintza hau apirilaren 6rako antolatu dugu eta guztira bederatzi kilometro egingo dira Derioko eskolatik Zamudioko kiroldegira arte. Martxari goizeko 10etan ekingo diogu eta bakoitzak nahi duen moduan egin ahalko du, oinez, patinez, bizikletaz... Lasterketari goizeko 11etan emango zaio hasiera. Izena martxoaren 31ra arte eman daiteke Loiu, Larrabetzuko eta Lezamako liburutegietan, Zamudioko, Sondikako eta Derioko kiroldegietan, eta Mankomunitatean bertan (94 454 03 50). Izena emateko fitxak Mankomunitateko webgunean daude eskuragarri: www.e-txorierrri.com. Izen-ematearekin batera kamisetak banatuko dira. Helduentzako kamisetek bost euro balioko dute; eta hiru euro, umeentzako kamisetek. Hirurehun kamiseta egingo dira eta batzen den dirua Gure Señeak gaixotasun arraroak dituzten umeen aldeko elkarteari emango zaio. Gainera, jokoez eta musikaz gozatu ahal izango dugu lasterketa eta martxa bukatzen direnean, eta autobus bat jarriko da Zamudiotik Deriora itzultzeko. Kiroldegiko duxak ere erabili ahalko dira.

APURKE-APURKE AURRERA JOATEKO (NAGUSIEI ZUZENDUTA)

Kepa Lizarraga Bizkaiko Foru Aldundiko kirol medikuak hitzaldi bana eman du Sondikako eta Larrabetzuko Nagusien Etxeetan. Sondikako Nagusien Etxean, "Kirolak dituen onurak" hitzaldia eskainiko du apirilaren 3an, arratsaldeko 4etan. Eta Larrabetzuko Nagusien Etxean, "Apurke-apurke aurrera joateko" hitzaldia, apirilaren 4an, goizeko 12etan.

Gizakiok mugitzeko gaude diseinatu eta, milaka urteetan zehar, jarduera horretara egokitu behar izan gara bizi-rauteko. Orain dela gutxi arte, ur bila, egur bila, arropa garbitzera... atera behar izan gara etxetik, baina gaur egun etxe guztietan daukagu ura, beroa, garbigailua... Gainera, autoa eta garraio publikoa ere badaukagu eta etxe askotan badago igogailua. Aldaketa horiek guztiak kon-tuan hartuta, mugitzea aukera bat da gaur egun, ez beharizan bat. Baina mugitzen ez bagara, gure gorputza arazoekin hasiko du.



Oker zuzenketa

Aurreko alean datuak jakinarazi genituen iaz Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeko zerbitzuak adingabeei eta familiei emandako arretari buruz. Baina datuok ez ziren zuzenak; datu zuzenak hauek dira:

Umeak eta familia

GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOKO ESKU-HARTZEKO ZERBITZUA

Arreta eman zaien adingabeak

ZAMUDIO	22
SONDIKA	14
LOIU	0
LEZAMA	12
LARRABETZU	9
DERIO	21

Zailtasunak: eskola garapenerako, laguntza psikologikoa edota psikiatrikoa, harreman txarrak gurasoeekin, gizarte-trebeziarik eza, arduragabekeria oinarritzko zaintzetan, portaera disozialak, eta tratu txarrak.

Arreta eman zaien familiak

ZAMUDIO	11
SONDIKA	6
LOIU	0
LEZAMA	8
LARRABETZU	5
DERIO	11

Zailtasunak: hezkuntza jarraibideak emateko, familiakideen arteko harremanetan, heziketan, komunikazio-arazoak, tratu txarrak eta laguntza psikologikoa edota psikiatrikoa.

*“Arau zorrotzak daude
janzkerari buruz:
neskek, adibidez,
estalita izan behar
dute bizkarra”*

*“Dantzariak baino,
ematen du neska- eta
mutil-laguna garela.
Konfiantza handia
dago gure artean”*

t/a: Gaizka Eguzkitza

“Guretzat dantza ez da soilik zaletasuna. Ogibidea denik ere ez nuke esango, behintzat oraindik, baina dantza bada zaletasuna baino askoz gehiago”, esan digu Mikel Eguiak. Derioztarra gaztea da, 19 urte ditu, eta dantzatzeaz gain, Kazetari-tza ikasten du Leioan. Sara Macarrilla adin berekoa da eta Administrazio eta Finantza goi-mailako heziketa zikloa ikasten dabil. Beraz, etorkizuna bermatuta dute, dantza haien lanbide bihurtzea lortzen ez badute.

Baina ziur asko lortu egingo dute. Izan ere, bikote derioztarrak ordu asko ematen du dantza egiten. “Astelehenetan eskola teknikoa egiten dugu maisuarekin Bilbon. Gainera, hilean behin beste irakasle bat etortzen da Bartzelonatik eta eskola ematen digu. Asteazkenetan ordubete ematen dugu elkarrekin dantzatzen Kultur Birikan, eta ostegunetan, ordu eta erdi. Ostiraletan, lan fisikoari ekiten diogu hiru orduz, pistan erritmoari eutsi ahal izateko: korrika egin, pilatesa, dantzak...”, aipatu du Sarak.

Eta denbora ez ezik, dirutza ere inbertitzen dute. “Gutxi gorabehera 2.500 euro gastatzen dugu urtean: bidaiak, hotelak eta txapelketetan izena ematea ordaindu behar ditugu. Eta horri janzkera gaineratu behar diozu”. Bartzelonako diseinatzaile batek ospe handia du dantzarien artean eta soineko bat egingo dio Sarari. Derioztarrak 840 euro ordaindu behar izango du



Hurrengo dantzarako prest

SARA MACARRILLA ETA MIKEL EGUIA | dantzariak

Telebistak modak zabaltzen ditu, eta horri esker aretoko edo kirol dantzak daude pil-pilean azken bolada honetan. Agian horregatik hasi ziren dantzatzen Sara eta Mikel derioztar gazteak. Gaur egun lehiaketetan hartzen dute parte Estatu osoan zehar, eta Espainiako lehenengoak dira beren mailan.



horren truke. "Eta maila altuenetan, garestiagoak dira", dio Sarak. "Jantzi bakarra da, eta hori ordaindu egin behar da. Niri bodya 350 euro kostatuko zait, eta prakak, 250", esan du Mikelek.

Janzkera oso garrantzitsua da aretoko dantzetan. Neskek soineko eta zapata bereziak behar dituzte dantza latindarretarako, eta dantza estandarretarako beste batzuk. Mutilen janzkera ere aldatu egiten da, baina ez hainbeste. "Epai-mahaiak oso zorrotzak dira eta dantza aztertzeaz gain, arauak daude janzkerari dagokionez. Esate baterako, beheko mailetan neskek bizkarra estali behar dute eta gona beti belauneraino ailegatu behar da. Hasiberrien mailetan eskotea ere ezin da irekiegia izan".

Baina arropa baino askoz inportanteagoa da dantzarien maila, noski. Eta ez bakarrik teknika, adierazten duten sentimendua ere bai. "Mikel eta biok txikitatik ezagutzen dugu elkar eta horrek konplizitate eta konfiantza handia ematen digu. Dantzariak baino, ematen du neska- eta mutil-laguna garela (kar, kar)". "Bai, momentu guztietan jakin behar dugu besteak zer pentsatzen duen eta zer egingo duen. Dantzari bakarra izango bagina moduan aritu behar dugu. Beste dantzari batzuk gu baino teknikoagoak dira, baina guk hobeto ezagutzen dugu elkar eta hori dantza egitean islatzen dugu. Epai-mahaiak horrelako gauzak hartzen dituzte kontuan. Irakasle guztiek esaten digute bikote ederra osatzen dugula", aipatu du Mikelek.

"Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik."



SUITE DELUX

MARKA ESCLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

Colchonería Leioa

La Avanzada 80,
(Bilborako norabidea)
944 316 516

Colchonería Arteaga

Derioko Seminarioa,
(eguerdian zabalik)
944 545 147

Lotara Koltxoi-Denda

Errebal 19, Eibar
943 202 784

www.SUITDELUX.com



Bikotea lehenengoa da dantza estandarren Estatuko sailkapenean, D mailan

Sarak eta Mikelek ia bost urte daramatzate elkarrekin dantza egiten. Beste dantzari batekin aritzeak alde onak eta txarrak ekartzen ditu. Onuragarria da kideari laguntza eta babesa ematen diozulako; eta kaltegarria, bataren akatsek bestearen jarduera oztopatzen dutelako. Gainera, elkarrekin dantza egiteko, orduak eta orduak behar dira, sinkronizazioa lantzeko. Sararen ustez, bakarrik dantza egitea errazagoa da. "Zerbait oker egiten baduzu, horrek eragina izango du zure bikotearengan eta berak ere txarto egingo du".

Hastapenak

Amak Bilboko akademia batera eraman zuen Sara zortzi urte zituenan. "Nik aretoko dantzak egin nahi nituen, baina bikoterik topatu ez zidatenez, *funkya* dantzatzeko hasi nintzen, bakarrik. Baina mutil bat aurkitu zidatenean, *funkya* utzi eta areto dantzei ekin nien". Era berean, Mikel 14 urte zituela hasi zen dantzatzeko. "Izekoa ikustera joan nintzen dantza akademiara, amarekin. Eta azkenean amak eta biok izena eman genuen akademian. Hasieran berarekin egiten nuen dantza, baina gero pentsatu genuen hobe zela nire adineko neska batekin aritzea eta, zorionez, Sararekin hasi nintzen".

"Gogokoa bada eta ikasten bada, dantza egitea edonoren eskura dago"

Oso lehiakortzat hartzen dute euren burua. Beraz, ez da harritzekoa lehiaketetan parte hartzea. "Erakustaldiak egiten hasi ginen akademian-eta, baina irakasleak txapelketetan parte-hartzera animatu gintuen. Lehenengo saioetan lehenengo postuetan bukatu genuen, eta horrek

Kirol dantza

Kirol dantzak bi mailatan sailkatzen dira: estandarrek, hau da bals ingelesa, bals vienarra, tangoa, *slow fox* eta *quick step*; eta latindarrak, hots, sanba, txa-txa-txa, rumba-boleroa, pasodoblea eta *jive* edo rock&rolla. Guztira, 10 dantza menperatu behar dituzte dantzariak. Estandarrak oso teknikoak eta zorrotzak dira; latindarrek, ordez, indarra eta sentimendua adierazten dute. Gazteei sanba eta tangoa gustatzen zaizkie bereziki. "Sanba aktiboena da eta figurak oso politak dira".

aurrera egiteko indarra eman zigun, baina gero konturatu ginen ez zela hain erraza, eta gogor lan egin behar zela lehiaketak irabazteko".

Azken urteotan Estatu osotik ibili da Derioko bikotea dantza egiten. Urtean Espainiako hiru txapelketa nagusi egiten dira: dantza estandarrek, dantza latindarrak eta dantza mota biak uztartzen dituenak. Eta hara joateko, dantzariak urte osoan zehar antolatzen diren gainontzeko lehiaketetan lortu behar dituzte puntuak. "Puntuak arabera sailkapenak egiten dira eta horrek presioa suposatzen du", dio Sarak. Era berean, dantzarien trebetasunaren arabera, mailak daude. "Altuenak



Euskal Herrian Sara eta Mikel bezalako beste 14 bikote baino ez daude, eta federaziorik ez dago. Estatuko elitea Mediterraneo aldean dago, eta Espainiako Federazioaz gain, Aragoi, Katalunian, Balear Uharteetan eta Valentzian badute lurraldeko federazio bana. "Lehiaketak astebururo-astebururo daude, eta guk hilean behin hartzen dugu parte, gertuen daudenetan batez ere; bestela, dirutza da. Lehiaketetan, 10 minutuko saio bi egiten ditugu: batean dantza latindarrak dantzatzen ditugu; eta bestean, dantza estandar-rrak".

Nazioarteko A da, eta baxuena, F. Gu D mailan gaude dantza estandarretan, eta sailkapen horretan lehenengoak gara Estatuan. Lehen, dantza latindarren sailkapenean ere baginen lehenengoak, baina aurrera egin dugu eta gaur egun C mailan gaude".

A maila

"A mailara ailegatzea dugu helburu, eta hori lortu arte ez diogu dantza egiteari utziko, eta uste dugu xedea bost urte barru-edo lortu ahal izango dugula. Handik aurrera ikusiko dugu zer egiten dugun. Oso lagun gutxi bizi dira dantzatik, eta dantzarien karrera laburra izaten da. Dantzatzeari uzten diotenean, dantzariak maisu aritzen dira. Akademia zabaltzea ere balegoke ondo, baita epai-mahaiki-dea izatea ere. Ez dakigu..." Irakasle izateko aukera uste baino lehenago etorri zaie, Derioko Kultur Birikan eskolak ematen hasiko baitira. "Oso pozik gaude: alde batetik, dantza gazteen artean zabaltzeko aukera izango dugulako; eta bestetik, diru apur bat lortuko dugulako dantzak ekartzen dituen gastuak ordaintzeko".

Esaten da euskaldunok ez dugula erritmorik. Sarak eta Mikelek agerian uzten dute hori ez dela beti egia. "Nire lagun batzuek oso txarto dantzatzen dute, baina akademiara joan ez direlako, ez euskaldunak izateagatik. Nik gogor egin dut lan eta, orain, gero eta hobeto egiten dut, baina orduak eta orduak ematen ditudalako. Dantza egitea gogokoa bada, edonoren eskura dago". Derioko bikotea motibatuta dago. Bai, prest daude hurrengo dantzarako.



GURE IKASLEEN AHOTAN



"Proiektuek norberaren alde sortzaileena erakusteko aukera onak dira"

Eder Gómez Huerta | Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza graduako 3. maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoan

Zergatik aukeratu zenuen Diseinuko Ingeniaritza? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAN?

Egia esan, momentuko arriskua izan zen Diseinuko Ingeniaritza aukeratu izana. Artistiko adarreko ikasgaiak gustuko banituen ere, alde teknikoari jarraipena eman nahi nion. Azken finean, batxilergo teknologikoa gauzatu nuen. Horregatik, gurasoen lagun gertu baten alaba Ikus-entzunezko Komunikazio graduari jarduten zebilela, campuseko Diseinuko Gradua zertan zetzan ikustera animatu nintzen. Arrasatera hurbildu nintzen ate irekietako saio batera. Bertan, unibertsitateko instalazioak, ikastetxe nagusia eta klaseetako metodologia aurkeztu ziguten. Antza, graduako irteera profesionalek erabakia hartzen lagundu zidaten; Apple enpresako diseinatzaile industrialak den Jonathan Ive-k jarraituriko pausuak lortzeko nahian. MU ikasteak alde praktikoa bermatzeko aukera eskaintzen du. Urtean zehar egiten diren PoPBL-ei esker, kurtsioan zehar ikasitako konzeptuak landu ditzakezu. Proiektu hauek norberaren alde sortzaileena erakusteko aukera onak dira.

Nola baloratuko zenuke orain arte biziakoa esperientzia?

MU egondako urteetan zehar, bizi izandako esperientzia ona izan da. Etxetik kanpo biziak ere, erakargarriagoa egiten du esperientzia hau. Gainera, ikasle bakoitzak diseinuarekiko daukan ikuspegia oso desberdina da. Horregatik, beste ikaskideetatik ikasten dituzun gauzak erabilgarriak dira oso.



Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia? Alde praktikoa garrantzi asko ematen zaio?

MUko lan metodologia oso sistematikoa da. Analisi, kontzeptualizazio eta garapena dira metodologia osatzen duten hiru faseak. Lehenengo PoPBL-tik barneratzen duzu pausu bakoitzeko funtsa; hortik aurrera edozein problematikaren aurrean aplikatzeko balio duenari. Alde praktikoa garrantziaz ohartzeko, kurtsio honetan bizi izandako gertaera bat kontatzera noa. Bidarten (Frantzia) urtero antolatzen den "24h Innovation" txapelketan hartu genuen parte. Lanaren problematika azaldu bezain laster jarri ginen buru belarri MU unibertsitateko gentozen ikasleok. Frantzia eta bestelako herrialdeko diseinuko ikasleek, aldi, traba handiak zituzten lana bideratzeko. Arrazoiak, kanpoko bakoitzean erakusten den metodologia da.

MONDRAGON UNIBERTSITATEtik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Uste dut MU-k sustatzen duen talde lana dela gehien gustatzen zaidana.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Hurrengo urteko Erasmus programan sartzeko aukera lortuz gero, bertako esperientzia bizi ondoren gauzak argiago izatea espero dut. Horrela ez bada, enpresa edo estudio batean lanean aritzeko ideiak ere konbentzitzen nau.



Mila aurpegitako herria

"Herri bat, mila aurpegi" argazki erakusketa apirilaren 6ra arte egongo da ikusgai Sondikako sei taberna hauetan: Geltoki, Tindaya, Aterpe, Ordago, Txamo eta Batzokia. Erakusketa Atomika irudi enpresak egin du, Sondikako Inauterien batzordearen laguntza eduki duela. "Inauteriak herriko jairik inportanteenak dira, baina bukatzen direnean, egindako lan guztia albo batera gelditzen da. Beraz, pentsatu genuen aukera ona izan litekeela lan hori jendeari erakusteko". Taberna bakoitzean 10 argazki ipini dira ikusgai

eta bertan aurtengo Inauterietan harrapatutako momentuak azaldu dituzte. "Argazki horiez gainera, albumak ere itxi ditugu tabernetan. Jendeak bere burua birlatu ahal du album horietan eta argazkia erosi". Orotara 230 argazki batu dira albumetan.

Argazkilariak ez dira egun bitan argazki-kameratik urrundu eta, esandakoaren arabera, oso erantzun ona eduki dute herritarrendandik. Denak agertu dira prest argazkian ateratzeko. Emaitzaren lagin bat orri hauetan duzue.





“Badugu balio erantsi bat: euskara”

ERAKUSKETAREN EGILEAK

Aimar Ruizek, Unai Gonzalez de Langarikak eta Jon Goikouriak Atomika irudi enpresa sortu dute arestian. Gazteek hiru arlotan eskaintzen dituzten beren zerbitzuak: diseinu grafikoa, argazkigintza eta bideogintza. Besteak beste, lan mota hauek egiten dituzte: txartelak diseinatzea, irudi korporatiboa, pertsonen zein produktuen argazkiak, bideoklipak, spotak... Laster web diseinuan eskarmentua duen beste lagun bat batuko da lantalderra. “Produktu profesionalak eskaintzen ditugu ahalik eta kostu baxuenean. Izan ere, ikus-entzunezko produktuen kostuak oso handiak dira normalean eta guk hori demokratizatu nahi dugu. Hasteko, zerbitzua enpresa txiki eta ertainei emateko ideia dugu eta ondoren ikusiko dugu noraino heltzen garen”.

Gazteak dira, baina prestakuntza handia dutenak. “Bakoitzak eskarmen-



tua du bere esparruan eta ganorazko lanak egin ditugu, bermea ematen digutenak”. Hala ere, une latzak dira gaur egungoak eta, azaldu diguten moduan, aspaldi honetan arazoak eduki dituzte ikasitakoa garatzeko. “Enpresa horrexegatik sortu dugu, lan bilduma polita eta osatua izateko eta besteek gure lana ikusteko”. Enpresa

asko dira irudi eta komunikazio arloan dihardutenak, baina, beren esanetan, Atomikak badu balio erantsi bat: euskara. “Euskaraz ere lan egiten dutenak ez dira asko eta gu hirurok euskaldunak gara eta, beraz, ez dugu arazorik euskaraz komunikatzeko. Ezta gazteleraz eta ingelesez aritzeko ere”.

“Latinoamerikan 13 milioi ume dabilz lanean”

t: Itxaso Marina / a: G.D.

Zelan ailegau zinan Latinoamerikara?

Euskal Telebistako albistegietan nentzela atzerrira joateko gogo batzuta jatan, eta Montrealen, Kanadan, hile batzuk emon nituan ingelesa eta frantsesa hobetzen. Handik bueltau, eta kanpora joateko ideia euki neban barriro buruan. 2004ko urtarrilean Venezuelara joan nintzan, Eusko Jaurlaritzak Caracasen daukan bulegora. Kooperazinoari, enpresari eta euskal kolektibitateei lotutako gaietan ibili nintzan han. Horrezaz aparte, euskerea irakasten neban Euskal Etxean eta EITBrako egiten neban behar. Guztiz aldatu ninduen urte bi izan ziran. Oraindik be badaukat gogoan hara ailegau nintzan eguna; dana zan hain ezbardina: jentea, etxeak, argia...

Venezuelatik Costa Ricara, Unescon lan egitera.

Han urtebete baino apur bat gehiago egin neban, komunikazioaren garapenerako proiektuak Erdialdeko Amerikan, Mexikon, Kuban eta Dominikar Errepublikan kudeatzen. Programak adierazpen askatasuna, komunikabideen aniztasuna eta hedabide komunitarioen garapena zituen helburu. Kazetaria izanda, guztiz interesgarria izan zan komunikazioa alde horretatik ikustea eta bultzatzea. Unescotik Lanaren Nazinoarteko Erakundera (LNE) pasau nintzan, haurren lanaren aurkako nazinoarteko programan behar egiteko. Komunikazio arduradun ibili nintzan Erdialdeko Amerika, Haiti eta Dominikar Errepublikako bulegoan. Lau urte oso aberasgarriak izan ziran, izan be umeen alde egin ez ezik, beharraren mundua zelan eratzen dan be ikusi neban.

Orain Telefonica Fundazioaren arduraduna zara Costa Rican. Zein da zure beharra?

Hemen be umeen lanaren aurkako programak doguz, eta hezkuntzea da gure bidea. Erakunde publikoakaz egiten

GORETTI DAÑOBEITIA EGUIA | kazetaria

Lezamarrak ia zortzi urte daroaz Costa Rican, eta han Telefonica Fundazinoarako egiten dau behar. Gure artean 8.483 kilometro distantzia dagoan arren, teknologiaz baliau gara distantzia hori laburtzeko eta bere barri eukiteko.

dogu behar. Erakunde publikoen eta pribaduen arteko loturea oso aberatsa da; asko daukagu ikasteko. Berton hasi aurretik ez neban oso argi zein zan enpresa pribaduen indarra gizarte gaietan, eta guztiz harritu ninduan enpresa pribadutek gogor egiten ebala ikusteak. Latinoamerikako 14 herrialdetan gabilz.

Zein da Latinoamerikako ume eta gazteen errealidadea?

Hareetariko askoren egoerea ez da ona; pobrezia ez da lagun ona. Eta dirurik ezak ikasketak amaitu ezin izatea dakar askotan. Milioika neskato 18 urte bete baino lehen dira ama eta umeen aitek ez dabe ardurarik hartzen. Horrek be aukerak mugatzen deutsez gerorako. Biolentzia –armak tartean, herrialde batzuetan-, drogak, migrazinoara jo behar izatea, lanik eza... Ez dago behar egokirik gura-



*"Kalean dirua
ikusten dan arren,
zor handiak
dagoz Costarican"*

*"Berton hasi aurretik ez
neban oso argi zein zan
enpresa pribaduaren
indarra gizarte gaietan"*

soentzat eta umeak lanean dabilz. Lati-
noamerikan 13 milioi ume dabilz lanean,
hain zuzen be. Erronka handiak ditue bai
Ipar Amerikan (Mexiko), bai Ertamerikan
zein Hego Amerikan.

**Zelakoa da "Pura vida" lelotzat
daukan herrialde baten bizi izatea?**

"Pura vida" esaerea danerako erabil-
ten da hemen: agurtzeko, eskerrak emo-
teko, ona dan edozein gauzatarako...



Ticoak –halan esaten jeke Costa Ricako
biztanleei- lasai bizi dira, ez jake burruka
gustetan, eta ahoan beti daukie irribar-
rea. Paisajea ikusgarria da. Herrialde txi-
kia izanik, danetarik dauka; edurra izan
ezik. Oihanak ikaragarriak dira, piztiak
edonon. Hori dala-eta, turismoa da diru-
sarrerarik handienetariko bat dakarrena.
Ekonomiaren oinarria kafearen eta bana-
naren esportazioa izan da beti, eta orain
ananea be bai. Teknologia enpresa han-
diak eta software esportazioa be badira
dibisa askoren zergaitia. Bestalde, kalean
dirua ikusten dan arren, zorrak handiak
dira, bai persona edo familia mailan, bai
Estadu mailan. Eta badagoz eragozpen
handiak erreforma fiskala aurrera aterate-
ko. Presidente barria aukeratuko da apiri-
lean; ea zein izango dan gobernu barria-
ren proposamena.

**Venezuela eta Costa Rica ondo eza-
gutzen dozuzan herrialde oso ezbar-
din bi dira.**

Bai, guztiz ezbardinak dira. Costa Ri-
can, adibidez, ez dago armadarik eta hez-
kuntzan egiten dan inbertsinoa handia
da, nahiz eta behar bestekoa ez izan. Jen-
tea be oso diferentea da: bertokoak neu-
rritsuak dira harremanetan, eta venezue-
larrak, askoz zabalagoak eta alaiagoak.
Gauzak be askoz ordenatuagoak dira
hemen... Hainbeste dira diferentziak... an-
tzekotasunak baino askoz gehiago.

**Oso momentu kritikoa bizi dabe
Venezuelan.**

Demokraziarik ezak dakarrena ez da
inoz ona. Zer geratzen da Venezuelan?
Ba, pobreak beti pobre (orain arte izan
dituen hobekuntzak ez dira behin betiko-
ak, ez dira estrukturalak) eta aberatsak
beti aberats (krisietan beti dira irabazle-
ak). Baina txarren dagozanak erdi mailako
klasekoak dira, langileak eta enpresa txiki
eta ertainen jaubeak. Ahal izan dabenak
–edota gura, zeren eta ahal daben askok
ez dabe gura izan- kanpora joan dira.
Zenbat lanpostu galdu egin dira? Zenbat
ekoizteari itxi deusie? Ez dakit zein izan-
go dan bidea, baina Venezuelak aldaketa
handia behar dau.

**Karibbean bizi izanda, leku zoraga-
rri baten, ez dakigu herriminerako as-
tirik izango dozun...**

Herrimina beti dago, nahiz eta ondo
egon. Batez be familia eta lagunak...
Urterik behin edo birritan noa hara, baina
ez da inoz nahikoa.

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA PINTXOAK
Rafael Garcia Tejero
Oiz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 013

R P M
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak
Torrelarragoti Ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Peñasko
arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

**LEANDRO
LANDETA**
HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel: 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

San Isidro ermandadeak 50 urte bete ditu

t/a: Itxaso Marina

Jabier Zubietak azaldu digun moduan, ermandadeari buruz dauden lehenengo aktak 1963ko abenduak dira. Data horretan herriko bederatzi lagun batu ziren helburu hau zutela: elkarte bat sortzea, hileta batek dakartzan gastuak haren kide guztien artean ordaintzeko. Estatutuak egin zituzten eta gainontzeko herritarrei eman zieten egitasmoaren berri. Ermandadea hurrengo urteko urtarri-lean jarri zen martxan, eta harekin 249 lagunek egin zuten bat.

Senide bat hiltzen denean oso momentu mingarria eta delikatua da. Era berean, erabakiak hartu behar diren momentua da. Ermandadeak kontratu bat dauka ehorztetxe batekin eta bera arduratzen da hileta baterako beharrezkoak diren zerbitzu guztiez, baita egin beharreko izapide guztiez ere. "Besteak beste, hauek daude ehorztetxeak ematen dizkigun zerbitzuen barruan: hilkutxa –hiru eredu daude aukeran-, hileta-autoa, tanatorioa, ehorzketa edo errausketa, eskolak... Sartzen ez diren gauza bi bakarrak loreak eta egunkarian eskela ipintzea dira".

Ermandadeak 903 bazkide zituen 2013ko abenduaren 31n. "Bazkide bakoitzak kuota bat ordaintzen du, aurtengoa 46 eurokoa da, eta kuota horrek familieren kide guztiak hartzen ditu barne, familia bakoitzak duen kide-kopurua bata edo bestea dela ere. Hau da, guk familia-unitateak hartzen ditugu kontuan eta kasu batean, esate baterako, familia-unitatea pertsona bakar batek osa dezake,

Batzar nagusi berezia izan da aurten San Isidro Derioko ermandadeak ospatu duena. Berezia, mende erdia pasatu delako elkarte eratu zenetik. Ermandadea bederatzi lagunek sortu zuten eta haietariko bi oraindik bizirik daude. Horiei eta beste biren emazteei omenalditxoak egin diete martxoan.



*Ermandadeak hileta
batek dakartzan
gastuak kide guztien
artean ordaintzea
du helburu*

eta beste kasu batean, bost kidek". Familiaren kideetarik bat emantzipatzen denean ermandadeak eskaintzen dituen zerbitzuetatik kanpo geratzen da. Zerbitzu horietaz baliatzen segitu nahiko balu, familia-unitate berri bat bezala eman beharko luke izena.

Derioztarra izan behar da San Isidro ermandadeko kidea izateko. Hala ere, orain dela urte batzuk estatutuak aldatu zituzten beste herri batera bizi izatera joaten direnek ermandadeko kideak izaten jarraitu ahal izateko. "Bizileku berria zein den sei hilabeteren buruan jakinarazi behar digute".

Iaz ermandadeko 25 kide hil ziren eta hileta bakoitzak batez beste 1.520 euro balio izan zuen. "Ermandadeak ehorzketarekin kontratu bat adostuta edukitzeak hiletaren kostuak merkatzen ditu. Eta aseguru batekin alderatzen badugu, biek dena lotuta izatearen lasaitasuna ematen dizuten arren, ermandadeak merkeagoa izaten jarraitzen du. Hemen ez dugu kidearen adina kontuan hartzen eta ordaindu beharreko diru-kopurua berdina da guztiontzat. Gainera, harreman estua dago gure artean".

Alta gehiago

San Isidro ermandadeak kontratatutako ehorzketxeak Bizkaian soilik ematen ditu bere zerbitzuak. Beraz, zer gertatzen da hildakoa gure lurraldetik kanpo bizi bada, edo oporretan edo beste autonomia erkidego batean zegoela hil bada? "Aukera bi daude: alde batetik, gorpua Bizkaira ekartzea. Kasu honetan, ehorzketxearekin adosten da gorpua probintziako zein herritarra ekarriko den, eta ondoren ehorzketxea arduratuko da arduratu beharreko guztiaz. Eta bestetik, hildakoa Bizkaitik kanpo lurperatu edo erraustu. Hala egiten bada, hiletaren gastuen fakturaren fotokopia ekarri behar digute. Guk azken sei hileta hartuko ditugu erreferentziatzat eta batez bestekoa aterako

*Kontratatutako
ehorzketxea
beharrezkoak diren
zerbitzu eta izapide
guztiaz arduratzen da*

Hiletaren kostua merkeagoa da Deriokoa bezalako elkarteen bidez egiten bada

dugu. Hildakoaren familiari ateratzen den diru-kopurua ordainduko diogu. Hileta garestiagoa atera bada, aldea haien poltsikotik jarri beharko dute; eta merkeagoa izan bada, haiek ordaindutako diru-kopurua emango diegu".

Urterik urte ermandadeak alta gehiago ditu bajak baino. Ahoz ahozkoak zeri-kusi handia du horretan. "Seme-alabek etxetik alde egiten dutenean, gurasoek animatu egiten dituzte ermandadean jarraitzea. Beste batzuk gure kideen lagunak, auzokideak... dira. Ez dugu publicitate egiteko ohiturarik, baina urteurrena aukera egokia izan daiteke derioztarrak gugana hurbildu eta eskaintzen ditugun zerbitzuak ezagutzera emateko. Berrogeita hamar urte bete ditugu eta horrek abala ematen digu. Gure telefonora deitu ahal dute, eta momentu horretan ezin badiegu erantzun, guk deituko diegu beranduago". Telefono zenbakia 688 68 51 78 da.



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basernko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa C/10, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



**HAUR-MODA
TxIMELETA**

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

harategia - urdaitegia
MIGUEL



ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94



FRUTAK BARAZKIAK



Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel

Gaztelumendi, 3 - behea | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19



**ELORRIETA
INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47



**berba
lagun**

INFORMAZIOA:
Telefona:
635 75 35 95
E-mail:
txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

“Entendiduak” bai, baina



Otsailaren 22an, Markinara joan ginen eguna pasatzera. Egun ezin politagoa irten zitzaigun, Markinara heldu orduko tenperatura epeldu zelako. Herriko plaza zeharkatu genuen: umeek futbole-an jokutzen, algarak, tabernetako terrazak jendez beteta, eguzkia gure buruaren gainean, zeru urdinean... Kale estu batek sartu ginen: trapuak balkoietan, aspal-diko atek atarietan... Eta konturatu barik gure lehenengo helmugara heldu ginen, Jose Pablo Arriaga artistaren dendara.

Zurez landutako hainbat altzari ikusi genituen, baina Jose Pablorekin baino, beste artista batekin egin genuen topo: Enrike bere anaiarekin. Astiro kontatu zizkigun Pabloren gorabeherak, haren bidaia eta lanak. Harrigarria izan zen luma baten antzeko gizon honi entzutea. Bazirudien berba bakoitza botatzeko, egundoko lana egiten ari zela, eskultura bat lantzen egongo balitz bezala, berba bakoitzean askatasun kolpe bat emanaz.

Jarraian, Arretxinaga ermitara abiatu ginen, paganismoa eta kristautasuna batzen diren gunera. Harri ingurutik buelta eman eta gure arbasoen akelarretara hurbildu ginen; sua baino ez zen faltatu. Eta handik Axpe sagardotegira. Txotx! Upeletako sagardoa, gure edalontzietara. Bide luzea, buelta pare bat, kolore polit horri begiratu, ahora hurbildu eta barrura. Prozesu hori nahi beste errepikatu ostean, Axperen inguruko istorioak entzun genituen. Mendiak, haitzak eta

t: Paki

Nik nagusien egoitza batean lan egiten dut. Erizain laguntzailea naiz. Egoitzak lau solairu ditu. Solairu bakoitzean 53 atso eta agure daude. Goizean zortzi erizain laguntzaile daude, bi erizain eta medikua. Arratsaldean sei erizain laguntzaile eta erizain bat. Gauean bi erizain laguntzaile eta erizain bat.

Nik uste dut bai atsoak eta baita agureak ere oso ondo daudela han. Hogeita lau orduetan zainduta daude. Langileok oso jatorrak gara. Gure lana asko gustatzen zaigu. Gu asko inplikatzeko gara lan honetan, baina nik uste dut familia ere oso inportantea dela. Guk ez daukagu denborarik haiek paseatzeko. Orduan, egun osoan eserita daude eta ez da hoberena beraientzat. Zarakar asko ateratzen zaizkie eserita egoteagatik. Denon artean bizitza hobeago egiten diegu.

Nagusien egoitza

1. Esan edo idatzi beste modu batean, sinonimoa edo erabiliz eta Txorierriko erara:

Nagusien egoitza:

Zainduta daude:

Eserita daude:

Ez da hoberena:

2. Testuaren ulermena:

Noiz daude langile gehiago, goizean, arratsaldean ala gauean?

Langileek zergatik ez dituzte pasean eramaten zaharrak?

Zer kritika egiten zaie sindikatuei?

3. Azaldu berba honen esanahia:

Zarakar:

ERANTZUNAK:

1. Zaharren egoitza; jagon daude; jesarrita daude; ez da onena.
2. Goizean; denborarik ez dutelako; sindikatuei langileak bost axola..
3. Zaurietan sortzen den azal gogortua.

jakin, ezer ez

sagarrondoak aurrean genituela sagardoa ekoizteko prozesua ezagutu genuen. Hileko irakaskuntza ere eman ziguten sagardotegikoek. Hala, Eusko Labela lortzeko, behin "aditu" batzuk joan ziren sagardotegira haien ekoizpen prozesua aztertzeraz; ENTENDIDUAK. "Entendiduak" bai, baina jakin, ezer ez. Zer esan nahi ziguten honekin? Bada, praktika gutxi duten teoriko asko daudela, eta jakintza praktikak ematen digula. Hau edozein eremutara eraman dezakegu. Adibidez, euskaldunen artean nork ematen dio gehiago gure kulturari? "Entendiduak" ala euskaraz hitz egiten dutenak? Eta maitasunean? Hainbat teoria, hainbat bide daude, baina egin barik ez da ikasten. Beraz, epaitu barik, eman dezagun gure onena.

Datorren hilabetean...

Sukalki ikastaroa egingo dugu Lagatzu Zamudioko euskara elkartearekin batera. Ikastaroa Maite Lekerika sukaldariak emango du apirilaren 12an, Torrelarragoitin, eta 15 euroko prezioa izango du. Ikasitakoa bazkalduko dugu gero. Beraz, adi egon! Ikastaroan parte hartu nahi baduzue, badakizue zer egin.

Politikariek langileoi orain dela lau urte baino bizitza ezinezkoago egiten digute. Gero eta jende gutxiago gara. Zerbitzua okerragoa da. Ni bezalako ordezkariak euskara ikastera behartzen gaituzte. Momentu haietan sindikatuak ez zeuden gurekin. Haiek bazekiten jende asko kalean geratuko zela, baina sindikatoei langileak bost axola. Beraien interesei soilik jartzen diete arreta.

Horregatik, urte honetan ikasten hasi naiz, nire lana asko gustatzen zaidalako eta ez dut nahi galdu.

Euskara jakinda ate asko zabaltzen zaigu.

Atal honek berbalaguneko kideek euskaraz idaztea du helburu, nahi dutenari buruz eta modu errazean



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago



BFA
DFB
BFA DFB
BFA DFB



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

COTILLAS

(gazte eta nagusientzako komedia)
Apirilak 5, 20:00etan,
Prezioa: 10 €



ZINEA



LA BELLA Y LA BESTIA
114' EG-7 URTE (2D)
Apirilak 6, 17:00



NEBRASKA
115' AG (2D)
Apirilak 6, 19:30



RIO 2
102' AG
Apirilak 12, 18:00 (2D)
Apirilak 13, 17:00 (3D)



OCHO APELLIDOS VASCOS
98' AG (2D)
Apirilak 12, 20:30
Apirilak 13, 19:30

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldatuak jasan ditzake

2D: 4 € 3D: 6 €

ORRAZKERA ETA EDERTASUN-ZAINTZAK

Emaztegaiaren orrazkera aukeratzeko orduan, alderdi bi hartu behar ditugu kontuan: ezkontzan eramango dugun soinekoa eta, noski, gure estiloa eta gustua. Eta bakoitzak bere gustua duen arren, egia da orrazkerari lotutako tendentziak aldatzen ari direla urte batzuetatik hona. Hala, lehen emaztegai gehienek ile bildua nahiago bazuten, orain modan dago ilea era informalago batean eramatea. Ile-sorta bakoitzak bere lekuan, baina era naturalean.

Makillajeari dagokionez, hori ere naturala izan behar da, neutroa. Onena gure estilistaren esku ipintzea da. Berari esatea nolakoa den gure soinekoa, zeintzuk diren gure gustuak, zer islatu nahi dugun ezkontza egunean... eta berak lagunduko digu gure zalantzak argitzen eta hobeto datozkigun orrazkera zein makillajeari aukeratzeko.

Gainera, ile-apaindegi eta edertasun-zentro askok bonoak eskaintzen dituzte eta haien barruan hainbat zerbitzu izaten dira: orrazkera eta makillajeari eta haiei lotuta dauden probak, solariuma, edertasun-zaintzak, manikura, pedikura, gorputz-peeling-ak, presoterapia... Bonoak gure beharrianen edo gustuen arabera ere osatu daitezke. Izan ere, aspaldi honetan orrazkerari eta makillajeari ez ezik gorputzari ere eskaintzen ari zaio arreta berezia, ezkontza egunean eder egoteko eta gus-tura sentitzeko.

Emaztegaiez aritu gara, baina senar-gaia bagara, guk ere zaindu behar dugu gure irudia ezkontzari begira. Adibidez, edertasun-tratamenduren bat egin dezakegu, eta ezkontza egunean bertan gure orrazkerari edo ile-mozteari txukuntze batzuk eman. Makillajeari kontuan hartu beharreko beste alderdi bat izan daiteke, batzuek bizarraren hasiera disimulatzeko erabiltzen dutelako. Gure estilistaren aholkua ezinbestekoa izango da, gu ere ondo sentitzeko.

Bai, nahi dugu

Ezkongaiek hilabete asko ematen dituzte beren amets-etako ezkontza prestatzen. Erabakiak hartu behar dira hainbat detailearen gainean: emaztegaiaren soinekoa eta senargaiaren trajea, orrazkera, ezkontza-eraztunak, loreak, menua, musika, bidaia... Adituek lagunduko digute behar horretan.

Argazkiak: Joseba Apezetxea



GALAIISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana, 1-3, SONDIKA

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jasmi itaguri Facebooken

AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30
Uribe plaza, 1 beheko
Zamudio
94 4520419

LOREAK

Lore-sorta ere soinekoaren eta gure gustuen arabera aukeratu behar dugu. Emaztegai gehienek *bouquet* estiloko lore-sortak nahiago badituzte ere, ausartagoak direnak eta beste forma modernoago batzuen aldeko apustua egiten dutenak ere badaude. Hori bai, emaztegai bakoitzak bere lorerik kutunena badu ere, arrosak, kalak eta orkideak beti daude modan.

Ezkontzaren beste lore-detaile guztiak ere, hala nola autoaren apaingarriak, zeremoniako loreak eta eztei-oturuntzan mahai erdian ipiniko diren lore-zentroak, gure lore-sortaren arabera aukeratu ahal ditugu, haien artean harmonia sortuz. Trajearen papar-hegalean lore bat edo beste detaile bat eramatea senargai bakoitzaren erabakia da, baina lore bat ipintzea erabakitzen bada, komenigarria da emaztegaiaren lore-sortan inspiratuta egotea.

Lore bakoitzak bere esanahia duela diote, eta haien koloreek gauza ezberdinak adierazten dituztela. Horregatik oso inportantea da gure lore-sorta oso ondo aukeratzea. Lore munduan adituak lagunduko digu erabakiak hartzen eta gure ezkontzari giro paregabe eta zoragarria ematen.



ERAZTUNAK

Egiptoko Antzinako Inperioko III. dinastia lehena izan zen atzamarrerako eraztun bat erabiltzen. Egiptoarrentzat zirkuluak ez zuen ez hasierarik ez amaierarik, eta beraz, mugagabea zena adierazten zuen; hau da, betikotasuna. Ezkontza-eraztuna ezker eskuko hirugarren atzamarrean ipintzeko ohitura grekoekin hasi zen. Haien ustez, "maitasunaren zaina" hirugarren atzamarretik bihotzera zihoan zuzenean.



Gaur egun, eraztunek ezkontza ospakizunetan protagonismo handia izaten jarraitzen dute, beren sinbologia eta esanahiagatik. Ohikoak urre horizko eraztunak dira, baina bikote gehienek eraztun modernoagoak nahiago dituzte: urre zurizkoak edo urre arrosakoak, edo euren artean konbinatuak. Lisuak izan daitezke, landuak, brillanteren bat eduki... Eraztunek ere gure estiloa adierazi beharko dute eta horren arabera pertsonalizatuko ditugu. Nolanahi ere, tendentzia apur bat zabalagoak egitea da, 5-6 milimetroak.

GOI-ALDE
Peluleria
Estetika
94 455 81 44
Anguleri 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia

ZB
ESTETIKA-ZENTROA
Anguleri, 2 - LARRABETZU
94 455 81 44
www.centroesteticozb.com

Ala-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorienko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

PASTELAK

Jatetxeek haien menuen barruan ez-tei-pastela eskaintzen badute ere, nahi badugu, tarta pertsonalizatu bat eskatu ahal dugu enkarguz. Nahi dugun zapo-rezkoa eta nahi dugun formakoa. Era berean, keinu polita da gure ezkontzara etorri ezin direnak edo gonbidatu ezin ditugunak gogoratzea eta pastelak bidaltzea.

AUTOA

Bikote bakoitzak nahi duen moduan azal daiteke zeremoniara eta eztei-oturuntzara: autoz, motorrez edo oinez ere bai. Gainontzeko guztiarekin gertatzen den bezala, hori bakoitzaren gustuaren, nahiaren eta estiloaren arabera aukeratu-ko da. Baina gure ezkontza aukera ona izan daiteke kapritxo bat eman eta luxuz-ko auto bat edo auto klasiko bat aloka-tzeko. Jaguar edo Rolls-Royce, esaterako. Mota horietako autoak akuratu dituzten enpresek gidaria ipintzen dute gure esku, etxera gure bila etorri eta zeremonia egingo den lekura eramateko. Eta handik argazki-erreportajea egitera, eta ostean, jatetxera.



ARGAZKI-ERREPORTAJEA

Ezkontza prestatzen hilabeteak ematen ditugun arren, eguna berehala pasatzen da. Argazkiak ezkontzaren oroitzapen iraunkorra dira eta aukera emango digute momentuak gogora nahi beste ekartzeko. Horregatik oso inportantea da ezkontzaren argazki-album ona izatea. Aro digitalak hamaika aukera ematen dizkigu, hala ere, ezinbestekoa da argazkilaria zein motatako albuma nahi dugun adieraztea, guretzat inportantea zer den eta garrantziari zeri eman nahi diogun. Eta batez ere erlaxatu eta bere profesionaltasunarekin fidatzea.

Tradizioz, argazkiak ezkontza egunean bertan egin dira, zeremonia eta eztei-oturuntzaren arteko tartean. Baina gaur egun, gero eta bikote gehiagok ezkontza-ren aurretik edo ostean egiten dute

argazki-saioa. Hala, lasaiago egon daitezke eta denbora luzeagoa dute gonbidatu-ekin egoteko. Eszenatokiak ere aldatu dira eta bikoteek leku ausartagoen alde egiten dute. Izan ere, lantegi abandonatu-ek edo txatartegiek ere badute bere xarma eta, hondartzak edo lorategiak bezala, haiek ere leku erromantikoak bihurtu ahal dira. Are gehiago, bikote batzuek bidaia merkeak topatzen dituzte eta argazkilaria Parisera edo Karibera eramaten dute, argazki-erreportajea bertan egiteko.

Beste aukera bat izan daiteke gure gustuen arabera gai bat aukeratu eta argazkiak horretan oinarrituta egitea. Animaliek inguratuta, musika jotzen, pelikula bateko pertsonaiak izango bagina moduan... Gure erabakia bata edo bestea dela, ezinbestekoa da gure argazki-albu-mean inoiz ahaztu nahi ez ditugun momentu horiek egotea.

OSKARBI
fotografoak
JOSEBA APEZETXEA

TALLERI KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apezeta@euskalnet.net

LEJARRENE JATETXEA
Garaioitza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano

- Menu bertatik azalduzaten
- Etxera ordezkatuko platerak
- Bizkaia astalduzaten
- Eguneko menua eta karta
- Jauertzeak eta solentzak
- Jantoki zahalak

R.º Garaioitza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA • Bizkaia

EZTEI-OTORUNTZA

Gastu handiena ekarriko diguna da eta, beraz, zentzuz aztertu beharko ditugu hainbat alderdi jatetxe bat edo bestea aukeratu baino lehen. Gure aurrekontua erabakigarria da horretarako; hala ere, krisialdiaren ondorioz jatetxe gehienek esfortzu handia egin dute menuen prezioa ahalik eta gehien egokitzeko. Ingurua ere hartu beharko dugu kontuan, leku zabala den, zenbat gonbidatu edukiko ditugun, dekorazioa gustatzen zaigun, mahaiak eta aulkiak zelan atonduko diren... Menuei dagokionez, jatetxeek proposamen batzuk dituzte eta haien osaketa ezkonberrien gustuen eta beharizanen arabera egiteko aukera ere ematen dute. Umeentzat eta dieta berezia duten pertsonentzat dituzten aukerez galdetzea ere inportantea da, gonbidatu guztiak gustura sentitzeko.

Era berean, gomendagarria da beste detaile batzuk buruan edukitzea: ongie-torri-koktela eskaintzen duten, doako barra, musika edo orkestra ipintzen duten, diskoteka duten eta hori zein ordura arte erabili ahalko dugun, ezkonberriei doako ostatua eskaintzen dieten...



Eta aurreztu nahi badugu eta zein egune-tan ezkontzeak berdin badigu, galdetu ahal diegu eskaintza berezirik duten, adibidez eztei-oturuntza bariku edo domeka

batean egiteagatik. Eztei-oturuntza eguneko momenturik inportanteenetarikoa izango da eta profesionalen esku utzi beharko dugu.

ARGAZKIGINTZA

–Oskarbi fotografoak

Telleri kalea, 3, Zamudio
94 452 00 14 / 607 40 00 078

AUTOAK

–Nire Autoocasion

Gernikako arbola, 10 (atzealdea),
Derio
94 454 51 92 / 686 97 06 41

BITXITEGIAK

–Ruben bitxitegia

Lehendakari Leizaola plaza, 5,
Zamudio
94 452 14 49

GOZOTEGIAK

–Iratxo

Mikel Zarate, 2-5 (lonja), Sondika
94 645 89 19

ILE-APAINDEGIAK / EDERTASUNA

–Amar ile-apaindegia

Uribe plaza, 1 beheka, Zamudio
94 452 04 19

Txorierri, non?

–Ane ile-apaindegia

Goiko kalea, 2 beheka, Derio
94 454 35 80

–Galaisa estetika eta ile-apaindegia

Sabino Arana, 1-3, Sondika
94 453 04 85 – 94 471 10 51

–Goizalde pelukeria-estetika

Anguleri, 2 beheka, Larrabetzu
94 455 81 44

–Leire Begoña ule-apaindegia

Mungialde etorbidea, 20, Derio
94 454 26 32

–Maria Antonia Llodio ile-apaindegia

Txorierriko etorbidea, 6, Zamudio
94 452 02 70

–Zuriñe Bilbao estetika-zentroa

Anguleri 2, Larrabetzu
94 455 81 44 / 650 94 70 57

JATETXEA ETA HOTELAK

–Aramendi erretegia

Arteaga auzoa, 119, Zamudio
94 452 11 58

–Aretxarte hotel-jatetxea

Teknologia Parkea, 200, Zamudio
94 403 69 00

–Erreka ondo jatetxea

Arteaga 80, Zamudio
94 452 14 19

–Gaminiz jatetxea

Ibaizabal, 212 – Tek. Parkea, Zamudio
94 431 70 25

–Goiko taberna

Garaioltza auzoa, 1, Lezama
94 455 41 10

–Lejarrene jatetxea

Garaioltza auzoa, 102, Lezama
94 455 65 46

–San Isidro

Mungialde etorbidea, 25, Derio
94 454 07 98

LORADENDAK

–Liliak loradenda

Erdiko kalea, 2, Derio
94 454 12 23

–Yedra floristas

Mikel Zarate, 2, Sondika
94 453 14 57



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



Liliak
Loradenda

Ezkontzatarako lore arteko
azken tendentziak eta klasikoak

Erdiko kalea, 2
48160-DERIO
94 454 12 23

Facebook:
liliak loradenda



Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com



Mikel Zarate, 2 - 3. lonja - Sondika, 48150 - 94 445 89 19

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com



a n e
i l e a p a i n d e g i a

solarium arin horizontala
duten zerbitzua
etengabeko ordutegia
hitzordua aurretik eskatuta

tel.: 94 454 35 80

Goiko kalea, 2 - 48160 Derio



**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com



**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO



EUSKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Fax 94 454 14 18 Mungia de etorbidea, 25 48160 DERIO



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnua.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lahendakari Letzeia plaza, 3
48170 Zamudio
94 452 14 99



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Kartzelako eskanerra

Kendu ditu banan-banan zidarrezko apaingailuak, baina eskanerretik igarotzerakoan pi, pi, pi, entzun da. Atara arren garrikoa, pi, pi, pia barriro. Erantzi dau bularretakoa eta pi, pia orain be. Katxeatu egin behar dauela kartzelazain batek. Ostireko be ezetz! "Gurago bisitarik barik"– dino amorruez. Esku-eskanerra ekarri dau beste kartzelariak. Fraka bakeroetako errematxe metalezkoak izan dira pi-pigileak. Tarte horretan le-rroko kitanuak erdal marmarrean. Igara gara atzenean lokutorioetara.

Jaiotetxetik espetxeraino joan dan neskatala, ama da, hamar hilabeteko

neskarena. Presondegikoaren sendikoa da. Zortziehun kilometroko bidaia egin dau.

Amaitu danean bisita kristal osteko mutilagaz, itzulerako bidea egiten hasi gara. Neskeak mugikorra oraturik, laster baten zabaldu dau albistea dozena erdi ezagunen artean: "Guapo-guapo topau dot!"; "Txokoko bazkarian izateko bera be gogoan; "Ea neska-lagun bat berarentzat non topau leiteken...".

Auto arinaren abiada, kilometro lu-zeek bihurtzen dabe astun etxeranzko

errepidean, Torquemada parean. Halako uneetan astia izaten danez bihotza asaskatzeko, egin egin dogu: Giltzaperatuaren ama, ahizta, neba, zergaitik ditu estatuak arerio? Nongo erakundek erabagi dau neba-arrebak, senideak edo ahaideak zigortzea? Zein arrazoirengaitik ez dabez errespetatzen legeak, agintari-ek eurek idatzirikoak?

Herrira ailegatzean, mosu pare bana emon deusaguz ama gazteari eta zoriondu kartzeleroen probokazioan jausi ez dalako. Berak eskerrik asko.

49195 LEZAMA Bidasoa Gaitasuna osoa, 36

S.A.T. LEGU
SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Fu 94 455 61 17 Tel 94 455 61 98

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

INBISA

SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinak eta lokalak barrutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzorua deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

INBISA Derio Enpresa-zentroa
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO
www.inbisaserviciosymedioambiente.com

Tel. 94 424 38 34

Etxeko sukaldaritza



Zankarro betea

Maite Lekerika

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 1 kg zankarro
- Kipula txiki bat
- Zanoria txiki bat
- Kalabazin txiki bat
- Koilarakada bat urun
- 350 ml esne
- 3 arrautza
- Orioa eta gatza

Prestetako area:

Okelea presinozko lapiko baten

egosiko dogu, 50 minutu inguru (bezperan egiten badogu, hobeto). Okelea xerra finetan ebagiko dogu. Barazkiak txikitu eta orio apur baten prijiduko doguz xerrak, su ezitan. Uruna gehitu eta eragin egingo dogu. Esnea be gehituko dogu, apurka-apurka eragiten dogun bitartean. Ondo egosiko dogu.

Okele-xerra baten gainean betegarria ipiniko dogu, eta, horren gainean, beste xerra bat. Uruneztatu, arrautzatik pasau eta prijiduko dogu. Zankarroia patata pure betegaz aterako dogu mahaira.

Indaba gorrien kremea

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Sobra gelditu jakuzan indabak (2 edo 3 anoa)
- 400 g zarba edo gura doguzan barazkiak
- Berakatza
- Orioa

Prestetako area:

Lehenengo eta behin, barazkiak egosiko doguz. Surtan kazuela bat ipiniko dogu uragaz (litro eta erdi gitxi gorabehera), eta borborka hasten danean indabak botako doguz. Irakin ondoren, surtatik kenduko doguz. Puregailuagaz edo txinoagaz pasauko doguz eta barriro ipiniko doguz irakiten. Hagatxu betegaz eragingo dogu, hondoan ez pegetako. Barazkiak txikitu eta pureari gehituko deusaguz. Berakatza prijido (atal bi-edo) eta kremara botako dogu.



Aislamientos Derio Tabakoak
Pladurrezko sabaiak eta apategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa
Aizeta Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com


Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa
Txartelaren etorbidea, 9-4
413. Irujoa
48100 Derio
Telefona eta faxa
94 454 44 98
a.amondarain@arantzaamondarain.com

LOTERIA LEZAMA
BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK
GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESENIAK
ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB
ARENALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONO/FAX: 94 455 64 87

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Urte 7. behe
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak
zeritro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea:
umeak

elekma
LARRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXOAK
Lehenengo mailak • Prestatzen onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Txarritan aurkeztu, 25-37 • 48180 Lolu
T: 944 539 232
www.elekma.es

XURREGOITI
JATETXEA
Laura eta elorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantexurregoit.com



Zer irakurri?

Afaria ez dadin saman trabatu

Txerra Rodriguez (Derioko Liluraturia taldea)

AZKEN AFARIA

Xabier Montoiak, SUSA, 2013

Hurreko kontuak dakartza Montoiak bere *Azken afaria* liburuan, hurreko denbora aldetik eta hurreko espazio aldetik. Fikzioa eroan ditu horiek Montoiak, baina benetakoak direla ematen du. Sarritan gertatu baitira horrelakoak gurean. Gehiegitan akaso.

Lau zati ditu liburuak, narratiboki lau-urak ezberdinak. Hasierakoan elkarriketa bizien bidez irakurleak aurrera egiten du ia konturatu barik. Bigarren zatia, berriz, kazetaritza ematen du. Kronika bidez kontatzen du istorioaren mamia. Arin eta gordin. Hirugarrenean, ordea, aldaketa dator: bakarrik luzea dakar zati honetan egileak. Larritasuna transmititzen du, minak



eragiten duen larritasuna. Eta laugarrenean, berriz, istorioaren troinua askatzen da.

Esan dudan legez, hurreko istorioetan barrena egindako bidaia da. Erruki barik azken urteotako gure miseriak agerian uzten ditu Montoiak. Atzamarra zau-

rian sartzen du behin eta berriz, latza baita istorioa (latza da ere errealitatea, zoritxarrez).

Joku politikoetan muturra sartu du Montoiak. Eta zikindu da, zikindu behar zelako. Beharrezkoa zelako. Ezinezkoa da liburuan aipatzen diren gai arazotsuak zikindu barik aipatzea. Baina dotore egin ditu egin beharrekoak. Fikzioak ematen dituen arrakalak erabili ditu horretarako. Eta gaia gordina izan arren, gozo irakurtzen da liburuak, minak eman dezakeen gozotasun apurrarekin. Gure arteko gorrotoak eta ezinikusiak ederto marraztu ditu, garratzak eta mingotsak izan arren.

Kale borrokaren aurrean eta atzean sarritan ostendu egiten diren kontuak azalera ekarri nahi izan ditu Montoiak. Nire belaunaldiko askok oso hur bizi izan dugu liburuko istorioa. Lagun eta ezagun askori gertatu zaizkio antzerakoak. Balio dezala fikzioak horrelakorik berriro ere ez gertatzeko.



Erakusketak

Sondika

- > "Ceuta, hiria eta muga", Fidel Rasoren eskutik. Apirilaren 1etik 28ra, erakus-keta gelan.

Derio

- > "Paisaiak", Untza mendi taldearen eskutik. Apirilaren 3tik 29ra, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Derio

- > Egiptologiako hastapena, Agustin Hurtadoren eskutik. Apirilaren 8an, 19:30ean, Kultur Birikan.

Zamudio

- > Emoziozko adimena, familientzat. Apirilaren 9an, 17:30ean, Zamudiotorren.
- > Hiri ortuak. Apirilaren 11n, 20:00etan, Gazte estazioan.
- > Ikerketa etnografikoaren, toponimikoaren eta kartografikoaren aurkezpena. Apirilaren 30ean, 19:30ean, Zamudiotorren.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: *Hori da umorea, maisu!* eta *Zorion handia*, Aiora Jakaren eskutik. Apirilaren 24an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean. Arrekikili euskara elkarteak eta Udalak antolatuta.

Ikastaroak

Derio

- > Apendetea elkartearen tailerrak. Apirilaren 5ean eta 6an, Kultur Birikan. Izena ematea: infoaprendetea@gmail.com.
- > Breakdance Master Class, Bboy Malakaren eskutik. Apirilaren 12an, 11:30ean, Kultur Birikan. Argibide gehiago: Mankomunitatea.

Zamudio

- > Zen Eguna. Apirilaren 17an, 19:00etan eskolan.

Ikuskizunak

Sondika

- > Umeentzako ipuin kontalaria. Apirilaren 11n, 18:00etan, liburutegian.

Derio

- > *Jusgaduen*, Justi Larrinagaren bakarrizketa. Apirilaren 4an, 20:30ean, Gure Aretoan.

Zamudio

- > Umeentzako ipuin saioa. Apirilaren 26an, 11:30ean, liburutegian.

Irteerak

Sondika

- > Arralde, Gurasoen elkarteak eta Udalak antolatuta. Apirilaren 13an. Izena ematea: apirilaren 9ra arte, liburutegian.

Derio

- > GR-280 Uribe: Armintza-Sopela. Apirilaren 6an, 7:30ean, Udaletxe aurrean. Untza mendi taldeak antolatuta.

Zamudio

- > Okina. Apirilaren 13an, Arroeta mendi taldeak antolatuta.
- > Kanariak. Apirilaren 29tik maiatzaren 4ra arte, Arroeta mendi taldeak antolatuta.

Lezama

- > Atxarte-Urkiolamendi. Apirilaren 6an, 9:30ean, eskolan.

Kirola

Sondika

- > Aste Santuko kanpua (6-12 urte), Hegalariak taldeak antolatuta. Izena ematea: apirilaren 15era arte, hegalarikiak@kzgu-nea.net.

Derio

- > Liga solidarioa, futbol 7: Athletic-Logroñés. Apirilaren 6an, 12:30ean, Ibai-ondo futbol zelaian.

Lehiaketak

Sondika

- > Balkoi Apainduak. Izena ematea: apirilaren 28tik maiatzaren 6ra, liburutegian.

Musika

Zamudio

- > Kamara Korallaren kontzertua. Apirilaren 12an, 20:00etan, Algortako Trinidad elizan.

Lezama

- > XXXV. Udaberriko kontzertuak: Ekidazu abesbatza, Berdantza abesbatza (Zierbena) eta Lemoako Abesbatzen Elkar-tea. Apirilaren 5ean, 20:00etan, Andra Mari elizan.

Larrabetzu

- > Hutsa taldearen kontzertua. Apirilaren 13an, 18:30ean, Hori Bai gaztetxean.

Bestelakoak

Derio

- > Apendetea elkarteak aurkeztea, Autismoaren Nazioarteko Egunaren haritik. Apirilaren 2an, 19:00etan, Kultur Birikan.
- > Tokiko Agenda 21, DerioKOMunikazioak antolatuta. Apirilaren 23an, 19:30ean, Kultur Birikan.

Zamudio

- > Bertso-afaria, Lagatzuk antolatuta. Apirilaren 4an, 21:00etan, Lubarrieta jatetxean.
- > Benidormera joateko izapideak: apirilaren 8tik 16ra.

Lezama

- > Adintsuen Elkartearen 25. urteurrena, apirilaren 6an.

Larrabetzu

- > Azalerako ipuinak (0-3). Apirilaren 4an, 17:00etan eta 18:00etan, liburutegian.
- > Irakurketa kluba. Apirilaren 11n, 16:30etik aurrera, liburutegian.
- > Txakolinaren Eguna. Apirilaren 13an.



Ane

ile-apaindegia



berria

Doako ile-diagnosia,

B. Prince (Paris)
laborategietako
teknikak erabilia

Emakumezkoak zein
gizonezkoak

Kontsultatu konpromiso barik

Etengabeko ordutegia,
ordua eskatuz gero

Koloratzeak Goldwell
produktuak erabilia:
tradizionalak, amoniakorik
gabekoak, Elumen

Produktuak salgai:
KMS
Paul Mitchell
Morocanoil

Goiko kalea, 2 DERIO-48160

94 454 35 80

AURTENETXE, S.A.

www.aurtenetxe.es



Kubota



OKASIOKO
MAKINERIA

UDABERRIKO
ESKAINTZA



STIHL®

OREC®

VIKING®

Oleo-Mac

Cub Cadet®

NIUBO

HONDA
POWER EQUIPMENT

Silky

Sogeon Pol., 34. pab
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18